

## Kultura

Durangaldeko 44 artistaren lanak bildu ditu Mikel Onandiak 'Artea Durangaldean gaur' liburuan > 11



**AZA  
RO  
AK25**

# Plateruena berreraiki dezagun

Plateruena Kafe Antzokia berreraikitzeko ordua heldu da. Datorren urtean hamar urte beteko ditu antzokiak, eta urtemuga hori inflexio-puntu izatea da hel-

burua. Durangaldeko kultur gile, eragile eta elkarteei deialdi zabala egin diete, azaroaren 30ean aurkeztuko duten gogoeta prozesuan parte hartzeko. > 3



2002



2008



2012



2013

# ALKIMAX

Alquilamos soluciones



Eitua industrigunea 71C  
48240 BERRIZ (Bizkaia)  
94 682 45 50  
[alkimax@alkimax.net](mailto:alkimax@alkimax.net)  
[www.alkimax.net](http://www.alkimax.net)



### Otxandio > 2

Frankismoko krimenen kontrako prozesua babestuko du Otxandiok

### Durangaldea > 4

Borroka Eguna deitu du LABek datorren egunerako

### Durango > 4

Okupatzaileek Salesen komentua husteko agindua jaso dute

### Iurreta > 8

El Salvadorretik Sopelanaren jaioterria ezagutzera etorri dira

# Herririk herri

> OTXANDIO

## Frankismoko krimenen kontrako prozesuari babesa emateko bidaia Argentinara

Euskal Plataformak azaro amaieran Argentinara antolatu duen bidaiaren parte hartzeko eskaintza onartu du Otxandiok, eta Santi Uribe alkatea joango da



Bonbardaketa gogoratzen duen Nestor Basterretxearen eskultura Otxandion.

> JOSEBA DERTEANO

Espainiako estatuko estamentu judizialean itxita aurkitu duten atea zabalik aurkitu dute frankismoko biktima askok eta askok Argentinan. Izan ere, Maria Servini epaile argentinarrak frankismoko krimenen kontrako hainbat kereila bideratu ditu. Horrela, Euskal Plataformak askotariko biktimen kereilak ipintzeko bidaia antolatu du azaro amaieran. Aurretik beste bitan joanak dira. Honako honean hainbat erakunderi ere luzatu diete parte hartzeko gonbita, tartean Otxandioko Udalarari. Udalak proposamena onartu,

eta erakunde honetako ordezkari nagusi den neurrian, Santi Uribe alkatea izango da Argentinara joango den segizioko kideetako bat. Azaroaren 30ean joan, eta abenduaren 5ean itzuliko da.

Frankismoko krimen eta gehiegikeriak ez ahazteko lanean dabilen elkartearen bilgunea da Euskal Plataforma. Plataforma horren bidez egin diote eskaintza Otxandiok, 36ko Gerran bonbardatu zuten herrietako bat izan zelako. Beste herri batzuetara ere luzatu dute proposamena. Alde batetik, frankismoko krimenak aztertze-

daketaren gainean testigantza aurrez aurre emateko aukera izango du. Euskal Plataformak abenduaren 2an lotu du epaile argentinarragaz bilera.

**Kereila jartzaileak**

Argentinara egingo duten hirugarren bidaia hau orain arteko handiena izango dela adierazi du Euskal Plataformarenizean joango den Josu Ibargutxik. Hogeita bost bat kereila jartzailegaz batera, ordezkari instituzional ugari joatea espero dute: alkateak, Giza Eskubideen batzordeko legebiltzarkideak, alderdi batzuetako ordezkariak... Kereila jartzaileek hamar bat egun emango dituzte Argentinan. Kereila ipiniko dutenen artean daude Jon Arrizabalaga (torturak salatu zituen Andoni Arrizabalagaren anaia), Andoni Chasco (1976an Gasteizen izan zen langileen grebako biktimetako bat) eta Felipe Elizaguirre frantziskanoa (torturak salatu zituen, eta sasoi hartan torturak jasotako apaiz askoren ordezkari gisa doa).

Maria Servini epaileari bonbardaketaren testigantza emateko aukera izango du Uribek

ko prozedurari "sostengua eta bultzada ematea da helburua", adierazi du Uribe alkateak, baina, horrez gainera, Maria Servini epaileari Otxandioko bonbar-

## Tasa eta zerga gehienek %2ko igoera izango dute

Salbuespenetako bat uraren kudeaketa osoari dagokion tasa izango da, eta %8 igoko dute

> J.D.

Joan zen asteko eguenean 2014ko ordenantza fiskalei hasierako onarpena eman zieten aho batez. Oro har, tasa eta zergarik gehienei KPIaren arabera igoera aplikatuko diete: %2.

Salbuespenen artean ur edangarriaren hornikuntzaga-tik, eta estolda zerbitzuagatik ezartzen den tasa dago: % 8ko

Tasa batzuk bere horretan mantenduko dituzte, ondasun higiezin gainerako, esaterako

igoera izango du. Horrela, gutxiengo kontsumoaren bueltan dabilen herritarrari, gutxi gorabehera, urtean zortzi euroko igoera eragingo diola kalkulatu dute udal ordezkariak: lau bat euro uraren tasan, eta beste lau bat estolderiari dagokion tasan. Otxandion uraren ziklo osoa udalak kudeatzen du, eta kobratzen duten zenbatekoa Bizkaiko

Ur Partzuergoak (Bizkaiko herrikerrik gehienak hartzen ditu) kobratzen duenaren parean dagoela azaldu dute. Partzuergoak %8ko igoera egin du aurten, eta udalak ere igoera berbera onartu du.

Tasa eta zerga batzuk, aldiz, bere horretan mantenduko dituzte, Ondasun Higiezin gainerako Zerga (OHZ), esaterako. Bizkaiko Foru Aldundiak Bizkaiko herri guztietako katastroa egunartzeko ardura dauka, baina, oraindik, ez du egin. Horrela, Otxandioko hainbat etxebizitzatan (etxebizitza zaharretan) orain 40 bat urteko katastroan oinarritutako balioen arabera zenbatekoa ordaintzen dute. Desoreka dago etxebizitza zaharrek eta berriek ordaintzen dutenaren artean. Beraz, ordenantzetan igoera bat ezarriko balitz, etxebizitza berriagoek, proportzioan, igoera handiagoa jasango lukete bizileku zaharagoekin alderatuta. Horiek horrela, Bizkaiko Foru Aldundiak balio horiek eguneratu arte, zerga dagoen horretan mantentzea erabaki dute.

## Bankuekin negoziazioan ari dira hiltegiko lurren hipotekari aurre egiteko

> J.D.

Erralde hiltegia osatzen zuten herriek orain hilabete batzuk egindako kapital handitzeagaz, Erraldek hartzekodunekin zituenez zorrik gehienak ordainduta daude. Baina, oraindik, beste gastu bati egin behar diote aurre Erralde osatzen zuten 15 udaldiri: Hiltegi berri bat egiteko helburuagaz, Berrizen erosten hasi ziren lur zatiak (90.000 bat metro karratu) daukan hipotekari, hain zuzen. Otxandiok dagoen zenbatekoa 120.000 eurokoa da, eta gastu horri aurre egiteko bankuekin kreditua negoziatzen dabilzala argitu zuen Santi Uribe alkateak, eguenean egindako udalbatzarrean. Udalarari urtero 15.000 euroko kostua eragingo diola kalkulatu dute.

Bere sasoiaren proiektu bat egin zuten Berrizko Eitua auzoan dagoen lur zati horretan etorkizunean hiltegi berri bat egiteko herriburuagaz. Horrela, etorkizunean, hiltegi berri bat edo lehen sektorea sustatzeko egitasmoren bat bertan egikaritzeko itzaropena dutela adierazi du Santi Uribe alkateak: "Oraingoz ezin da jakin zer gertatuko den, baina hori gustatuko litzaiguke".

> BERRIZ

## Herri bazkarian batuko dira euskararen alde

Pagotxak, bertso eskolak, Ireminiek, Hiltegixek eta Berrizko Udalak Euskararen Astea antolatu dute

> AMAIA UGALDE

Azaroaren 30ean, frontoian, herri bazkaria egingo dute Berrizen, Euskararen Astea dela eta. Euskararen Nazioarteko Eguna da abenduaren 3a, eta horren inguruan aste osoko egitaraua antolatu dute Pagotxa aisialdi elkarteak, Iremini dantza taldeak, bertso eskolak, Hiltegixe gaztetxeak eta Berrizko Udalak, elkarlanean.

Datorren asteko zapatua izango da egun handiena. Frontoian egingo dituzte ekintzak, eta, eguerdian bazkaltzeko tiketak salgai daude honezkero, estankotan. Umeentzako tiketak 6 euro balio ditu, eta nagusienak 8. Goizean umeentzako tailerak eta altxorraren bila jolasa izango dituzte, eta arratsaldean,

Bazkarirako sarrerak estankotan daude salgai: 6 euroan umeentzat, eta 8 euroan nagusientzat

olinpiadak, umeentzako zein nagusientzako. Erromeriagaz amaituko dute eguna.

Bezperan, gaztetxean bertso-saioa egongo da, eta, domekan ere egongo dira bertsoak: *Ez gara Palestinaz ari* ikuskizuna izango da kultur etxean. Pirritx eta Porrotxen bisita ere izango dute eguazten arratsaldean

**Toponimia liburua**

Euskararen Astearen harira, Berrizko toponimia batzen duen liburua aurkeztuko dute, abenduaren 2an, 19:00etan. Berrizko leku izenak ikertzen bost urteko lana egin du Ander Ramosek, artxiboetan arakatzen eta berriztarrei galdetzen. Liburuan jaso dituzte ikertutakoak.

**Euskara Plana**

Udalak, bestalde, Euskara Biziberritzeko Plana berriztu du datoen lau urteetarako. Euskara Aholku Batzordeko ekarpen ugari jaso dituzte plan berrirako. Aisialdian, umeen eskolaz kanpoko jardueretan eta kirolean eragitea izango da helburu nagusia.

**> DURANGO**

# Plateruena berridazteko gogoeta egingo dute

2014an garatuko den gogoeta prozesua aurkeztuko dute azaroaren 30ean

**> MARKEL ONAINDIA**

Plateruenak etapa berri bat hasiko du hurrengo zapatuan, azaroaren 30ean. Bederatzi urte dira Berbaro elkartearen eskutik euskarazko kultur gintza sustatzeko antzokia sortu zenetik, eta egitasmoa berridazteko ordua dela uste dute arduradunek. 2014an garatuko den gogoeta prozesua aurkeztuko dute hilaren 30ean. Norabidea, Durango kultur gune herritarra izatea.

Ibilbide honetan kultura eta ostalaritza eskaintza oparota eman du Plateruenak. Bestalde, ez da bide erraza izan arlo ekonomikoaren ikuspegitik. Udalaren jabegoko hiltegi zaharra gestionatzeko lizentzia lortu zuen hemezortzi urterako, eta eraikinaren obrarako milioi eta

erdiko inbertsioa egin zen. 870 herritarren artean 473.000 euroko ekarpena osatu zen. Gaur egun, oraindik, zorra kitatzeko lanean dabil, eta arduradunek esan dute une oso zailean dagoela egitasmoa. Baina, horrek ez du zapuztu ekimen kulturala, eta adibide dira *Zilarrezkoak* deitzen diren ekintzak: Kantuaren Kantoia, DF Bertsozale Eskola, Berbertan, Kantulagun, Lokaletik At.. Horiek guztiak herritarren eta eragileen partaidetzagaz landu dira, gainera.

**Partaidetza prozesua**

Proiektua eraberritzeaz uda aurretik hasi ziren hausnarrean. EHUko Parte Hartuz ikerketa taldeko Marta Calvoren laguntzaz, inkesta bat egin zuten jen-

de talde batez. Orokorrean, Plateruenak egindako lana ondo baloratu zuten, baina parte hartzeko bideak erraztu behar zirela ere ondorioztatu zuten. Hori kontuan hartuta, hamargarren urtemuga proiekturako inflexio-puntu izan dadila erabaki zuten. Horregatik, partaidetza prozesua ere kulturzale, sortzaile, eragile eta herritarrekin batera garatzea adostu zuten.

EHUko ikerketa taldeak edukiko du prozesua dinamizatzeko ardura. Dinamizatzaileen lana Alicia Suso eta Marta Calvok zuzenduko dute. Besteak beste, gabezieta eta zailtasunetan murgilduko dira batzarretan.

Bederatzi urteren ostean, Plateruena eguneratzeko, berreraikitze ordua heldu da.



Hainbat kultur ekitaldiren bilgune izan da Plateruena.

## Herritarrak protagonista, sakoneko eztabaida kolektiboan

Aurkezpena:  
azaroaren 30ean,  
10:00etan

EHUko Parte Hartuz graduondoko lantaldeko kideek adierazi dute herritarrak izango direla prozesu parte-hartzaileko protagonista: "Aurreiritzietatik eta iritzi pertsonaletik sakoneko eztabaida kolektibora egingo dugu salto". Prozesuak berak balioa edukiko duela uste dute: "Ondo eginez gero, herria aberastu dezakegu, herritarren arteko harremanak hobetuta, eraldatuta".

Endika Blanco euskalgintzako kideak eta Egoitz Esturo Kriskitineko dantzariak aurkezpenera joateko deialdi zabala egin dute, baita Erika Uranga Plateruenerako kultur arduradunak ere.

**ERIKA URANGA**  
Plateruena

"Plateruenaz herritarrek duten iritzia jasotzeko oso beharrezkoa da prozesu honi ekitea. Eguneroko lanean bertan gabiltzanoni, geldialdi bat egin eta kanpokoek gure jardunaz esateko dutenari tarte bat egitea ondo etorriko zaigu; aberastu besterik ez gaitu egingo.

Plateruena antzokia guztiona dela, herriarena dela sentirarazten dutenen berba eta auzolana aktibatzeke jarraitu beharreko bidea da prozesua. Platerueneraren biziberritze aktibo bat ekarri dezake. Eta herri oso bat euskarazko kultur gintza herritar baten proiektuan ekinean gogotsu murgiltzea ere bai".

**ENDIKA BLANCO**  
Filologoa

"Herritarren ekimenez sortutako Plateruena Kafe Antzokia Durangon euskara eta kultura pizteko beharrezkoa den bilgunea da, nire iritziz. Plateruenak egiten duen ekarpena handia izanik ere, badago zer findu eta hobetu. Eta hamargarren urteurrenera bidean, abian jarriko den parte-hartze prozesuaren bidez, eragileek zein herritarrok aukera izango dugu Plateruena guztion artean biziberritzeko.

Horrelako egitasmo batek etorkizun oparoa izan dezan, ezinbestekoa da etorkizun horren inguruan jende multzo handi batek pentsatzea, eta guztion artean margotzea".

**EGOITZ ESTURO**  
Dantzaria

"Kultur gaietan gabiltzanok, eta kultura bultzatzen dugunok jakin behar dugu horrelako leku bat aprobetxatzen. Batzuek ez dute aintzat hartuko hori erabili dezaketarik ere. Nik, behintzat, Plateruena guztiona den sentsazioa daukat.

Alde onak eta txarrak ezagutu eta zuzendu ahal izateko, errealitatea zein den jakin behar dugu. Denok izango dugu ekarpenak egiteko aukera. Informazioa jaso, zein egoeratan dagoen, zer egin ahal den bultzatzeko... Informazioa ez daukagunean, erraz kritikatzeko da, baina, benetan, ez dakigu zer pasatzen den".

Urbanizazio bikain batean, eremu berde askorekin eta leku paregabe batean etxebizitza bat lortzeko aukera  
Traña - Errota urbanizazioa (MATIENA - ABADINO)

2,3 eta 4 LOGELAKO ETXEBIZITZA LIBREAK

2 eta 3 LOGELAKO ETXEBIZITZA TASATUAK  
174.600€-tik aurrera.  
Garaje eta trastelekua barne

INMOBILIARIA  
**SAN FAUSTO**  
630 993 167 - 944 571 700  
www.sanfausto.es  
+ Informazio gehiago eraikitze lanetan bertan

**> DURANGO**

# Datorren eguenerako Borroka Eguna deitu du LAB sindikatuak

LAB sindikatuak azaldu du 6.680 lagun daudela lanik barik Durangaldean



LAB sindikatuko ordezkariak, joan zen astean egindako asanbladaren ostean.

**> MARKEL ONAINDIA**

LABek asanblada egin zuen joan zen astean, Durangon, eta azaroaren 28rako Euskal Herriaren deitutako Borroka Eguna deitu du egin zuten batzarreko

85 ordezkariak. Langabeziaren, prekaritatearen eta pobrezia-aren kontrako protesta izango da. Ohartarazi zuten, azken datuen arabera, hamar beharginetik bi pobeak direla Euskal Herrian.

“Lana edukitzeak ere ez du bermatzen bizimodu duina”.

LABek azaldu du Durangaldean 6.680 lagun daudela lanik barik. Borroka Eguna, negozio kolektiboaren defentsa landuko dute. Hitzarmen kolektiboak onartu ezean, 2014tik aurrera egoera asko zailduko dela diote, eta eskualdean indar handiz igarriko dela, industriak daukan pisuagatik.

“Arazoa politikoa denez, konponbidea politikoa izango da”, dio LABek. Baina, ez dute gehiegi sinesten politikarien lanean, eta, horregatik, presioa egingo duen fronte sozial baten beharra dagoela uste dute. Eguenean, eskualde mailako manifestazioa egingo dute Durangon, 19:00etan. Eguerdian, zenbait udaletxeren aurrean ere mobilizatuko dira.

# Husteko aginduaren aurrean, lanean daude komentu okupatua

Okupatzaileek kritikatu dute hamar urtez hutsik egon dela Salesen komentua

**> M.O.**

“Hemen gaude, lanean jarraitzeko gogoarekin”. Salesen komentuko okupatuko kideek prentsaren aurrean egin zituzten adierazpenak eguaztenean, astelehenean jasotako husteko aginduaren aurrean iritzia azaltzeko. Urri hasieran okupatu zuten. Gaur egun etxeak eraikitzeke enpresa baten jabegokoa da, baina lurra ez dago horretarako kalifikatuta. Okupatzaileek kritikatu dute hamar urtez hutsik eta abandonatuta egon dela. “Bota egin nahi gaituzte, baina erai-kinarekin ez dute ezer egingo. Ez daukate proiekturik. Eta guk baditugu hainbat, herrian beharrezko direnak”.

Enpresagaz hasieratik egon dira hartu-emanetan. Batzarrek

giro onagaz egin dituztela esan dute, eta enpresak ere akordio batera heltzeko aukera ikusten zuela. Baina, kritikatu dute, aldi berean, salaketa ipini zuela epaitegian. Horren ondorioz, berderatzi lagunek deklaratu egin

behar izan zuten, eta hurrengo pausoa husteko agindua izan da. Momentuz, ez dituzte bota.

Adierazi zuten beharritzat okupatu dutela komentua. Eta espazioa egokitzea izan da euren lehenengo lana.



Komentu okupatuko kideak, prentsurrekoan.

**> IZURTZA**

# San Iurgi elkarteagaz jarraitzea erabaki dute

Bazkideek aho batez erabaki dute San Iurgi Ehiza eta Arrantza Elkartegaz aurrera jarraitzea

**> JOSEBA DERTEANO**

San Iurgi Ehiza eta Arrantza Elkartea ez da desagertuko. Irail inguruan hainbat izurtzarren artean sortu zuten elkarteak aurrera jarraituko du. Horrela erabaki dute bazkide guztiek aho batez.

San Iurgik oilagor eta birigarro pase batzuk kudeatu gura zituen Izurtzan, aurten. Aldun-

Elkartea sortuta, pauso inportante bat eman, eta bide horretan jarraitu gura dutela diote Mugarrakoe

dira sasoiz egin zuten eskaera, baina handik denbora batera Bizkaiko Boletín Ofizialean argitaratzeko astirik ez zutela izan argudiatuta, aurten ezingo zirela ez oilagor eta ez birigarro paserik eman jakinarazi zieten

Aldunditik. Ondorioz, aurtengo paseak aprobetxatzeko honako aukera hau zuten: San Iurgi bertan behera utzi, eta Mañariko Mugarra elkartera batzea (berak kudeatuko ditu aurten pase horiek). Mugarrak erraztasunak eskaini zizkien horretarako, sarrerako kuotarik ez ordaintzea, esaterako. Hori jakinarazi zieten elkarte bietako ordezkariak egindako batzar batean.

Ondoren, urriaren 30ean egindako beste batzar batean, proposamena San Iurgiko bazkide guztiekin eztabaidatu zuten, eta aurten pase horiek barik geratu, eta San Iurgigaz aurrera jarraitzea erabaki zuten aho batez. Behin San Iurgi elkarte sortuta, pauso inportante bat eman dutela, eta bide horretan lanean jarraitu gura dutela azaldu dute elkarte kideek. Joan zen astean jakinarazi zieten erabakia Mugarra ehiza eta arrantza elkarte kidek.

**> GARAI**

# Zubiaurretarren omenezko pintura lehiaketa, domekan

Udalak eta Gerediaga Elkarteak antolatu dute

**> M.O.**

Garaiko Udalak eta Gerediaga Elkarteak kaleko pintura lehiaketa antolatu dute domeka honetarako. Zubiaurre artisten familia omentzeko aurten sus-tutatuko programaren barruan

600, 500 eta 400 euroko sariak egongo dira; 300 euro, berriz, garaitar onenarentzat

dago ekimena. Valentin eta Ramon anaiek egindako argazkiekin erakusketa bat ipini dute balkoietan, adibidez. Berez, margolariak ziren, eta lehiaketagaz, eurek Garain egindako artelanak gogoratuko dituzte.

Partaideek 09:00etatik 10:00etara zigitatuko dituzte margolanetarako euskarriak. Eta 14:00etatik 14:30era bitartean aurkeztu beharko dituzte lanak. Epaileek 20:00etan emango dute erabakia. 600, 500 eta 400 euroko sariak egongo dira; 300 euro, berriz, garaitar onenarentzat.

MATERIAL DE CONSTRUCCION  
**MACOBER**

Eraikuntzarako materiala  
**MACOBER**

Zeramika eta gresa

Eitua Industriagunea, 66 BERRIZ  
Tel.: 946 827 890 macober@movistar.es

**HEKi**  
HERRI KIROL KLUBA

- 656 782 552 -  
heki.iurreta@gmail.com

Umentzako eta nagusientzako erakustaldiak eta antolaketa

**hitz**  
liburudenda

artekalea, 14 durango  
946 810 776  
info@hitzliburudenda.com



Athletic-eko Kafe Ofiziala



Athletic

Bihotzean



Eskaneatu kode hau  
bideoa ikusteko

Escanea este código  
para ver el vídeo



**> ELORRIO**

## Saharaiengana doaz berriro elorriarrak

29 elorriar joango dira Tindufeko kanpalekuetara

**> MARKEL ONAINDIA**

Hurrengo barikuan 29 elorriar Tindufeko (Aljeria) errefuxiatuen kanpalekuetara joango dira. Lajwad Elkarreak, udalak, institutuak eta Txintxirri ikastolak bultzatzen dute egitasmoa. Horregatik, bisitarien artean, hainbat ikasleak izango dira.

Amgala herrian saharaierei laguntzeko proiektuak dauzkate 2010etik. Hango beharrezane erantzunez, esaterako, kirol zelai bat eta bizikleta zerbitzu bat sortu dituzte. Azkenekoa ortuak lantzeko laguntza ematea izan da, eta, aurten ere, hori egingo dute, auzolana egiteaz gainera.



Aurreko bidaia batean, elorriarrak Amgalan.

**> ABADIÑO**

## Traña-Matienako kiroldegiko araudia

Eskola kirolari eman gura izan diote lehentasuna

**> ITSASO ESTEBAN**

2011ko irailean inauguratu zuten Traña-Matienako erabilera anitzeko eraikinaren funtzionamendua arautuko duen ordenantza indarrean dago. Aho batez onartu zuten udaleko hiru alderdiek. Hainbat kirol praktikatzeko diseinaturiko azpiegitura hori "hobeto kudeatzea" izan dute, Jose Luis Navarro alkatearen berbetan, helburu.

Ikastetxeek eta herriko elkarteek espazio horri ahalik eta probetxurik handiena ateratzea gura du udalak, eta "eskola kirolari lehentasuna eman" diote. Eskola orduetan ikastetxeek edukiko dute eraikina heziketa fisikoko eskoletarako baliatzen lehentasuna. Kirol taldeek ekainetik uztaile arteko tarte edukiko dute azpiegitura erabiltzeko eskariak egiteko.

## Informazio panela ipini dute Trañabarrenen

Enpresa pribatuen berri ere emango du panelak

**> I.E.**

Herrian zehar ipinitako beste paneletan bezala, udalaren ekimenen berri emango du Trañabarrenen kalean ipini duten panel elektronikoa. Baina nobedade bezala, eta, gobernu taldeak jakitera eman duenez, enpresa pribatuen informazioa eta iragarkiak ere zabalduko dituzte, bertan. Jose Luis Navarro alkatearen berbetan, "orain arte paper inprimatua izan da dende eta enpresa txikiek euren burua ezagutarazteko izan duten modu bakarra, eta panel hauen bi-

tartez, aukera izango dute euren eskaintza herritarrei argi eta erraz helarazteko".

Panel berrian enpresa pribatuen informazioa eta iragarkiak ere zabalduko dituztela jakinarazi dute

Gobernu taldeak jakinarazi du, panel berria eraginkorra bada, herriko beste leku batzuetan ere ipiniko dituztela gisakoak.

## Segun Lazkano argazkilari, irakasle eta euskaltzalea hil da

Astlehenean hil zen, 54 urte zituela, gaixotasun baten ondorioz

**> JONE GUENETXEA**

Segun Lazkano irakasle, argazkilari eta euskaltzalea hil zen astlehenean, 54 urte zituela. Eloreko Barriketan euskara elkartearen jardun zuen Lazkanok, eta *Eraz* aldizkariaren sortzaileetako bat izan zen. Ondoren, *Anboto* astekariko argazkilaria izan zen urte askoan. Irakaslea zen lanbidez, Zelaietako eskolan. Inma Eguenek Barriketan euskara elkartearen eta *Erazen* bat egin zuen Lazkanogaz, eta horrela gogoratzen du. "Lagun euskaltzale handia, behargina, konpromiso handikoa, Barriketanen, *Erazen* edo *Anbotoren* alde lan egiteko beti prest, euskaltzaleen kohesioaren aldekoa, eta bizia, bizi-bizia".

Argazkilaritza zen bere pasioa. Uztailean antolatutako *Noctis Labyrinthu* proiektua,



Segun Lazkanori Txelu Angoitiak ateratako argazkia.

Txelu Angoitia eta Jesus Mari Arruabarrenagaz batera, Eloreko. Angoitiaren berbetan, proiektua ataratzea "gozamina" izan da. "Batzen ginen bakoitzean, irribarretsu, positibo eta edozer egiteko prest agertzen zen, nahiz eta, osasunak ez lagundu". Bere heriotzak

erakusketak hori prestatzen harrrapatu ditu, Durangoko geltoki zaharrean. Han egongo da bere azken lana, eta azokan aurkeztuko dute liburua. "Guretzako omenalditxo bat izango da. Itzi digun lan fotografikoa gogorra da, baina bere irria itzi digu, eta horrek salbatzen gaitu".

## Udaltzainburu lanposturako deialdia

Azaro amaierara arte aurkeztu daitezke eskabideak

**> I.E.**

Dagokion prozesua jarraituta, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu du Abadiñoko Udaltzainburu lanpostura aurkeztu gura dutenentzako deialdia. Azaro amaierara arte izango da eskabideak aurkezteko epea. Karrerako funtzionario aktiboak izan behar dute hautagaiek, eta hirugarren hizkuntza eskakizuna eduki behar dute.

Bestalde, udaltzaingoaren Astolako udal biltegian bulego berriak atontzeko lanei ekin dietela ere jakitera eman du gobernu taldeak. 42.000 euroko aurrekontua dute lan horiek, eta bulegoa ez ezik, batzarteko gela bat, dutxak eta aldagelak ere atonduko dituzte. Udaletxeko bulegoak ere zabalik jarraituko du, eta aurrerantzean ere jendea hartuko dutela azaldu dute.

## Bigarren eskuko merkaturako deialdia

Zelaieta auzoko probalekuan ipiniko dute, domeka goizean, 50 erakusmahaiako bigarren eskuko azoka

**> I.E.**

Zelaietako probalekuak bigarren eskuko azoka hartuko du bigarren urtez. Domeka goizean (10:00etatik 15:00etara), askotariko gauzak eskuragai izango ditu bertaratzen denak. Intereseko produktuak erosi zein trukea egiteko aukera eskainiko dute 50 postuak ipiniko dituztenek.

Iaz egin zuten bigarren eskuko produktuen azoka honen lehenengo edizioa, eta, iaz bezala, askotariko gauzak eskuratzeko aukera izango da bertan:

diskoak, biniloak, arropak, bitxiak, liburuak zein antzinako gauzak izango dira eskuragai.

Etxeko ganbaran eta armaruetan gordeta dauzkana gauzak izan daitezkeela uste duen edozeinek parte har dezake azoka honetan, eta, esan bezala, 50 lagunek egin dute, aurten, erakusmahaiak ipintzeko eskaria.

Artisauek eskuz landutako objektuak ere egongo dira probalekuan: larruagaz egindako objektuak, xaboiak eta bitxiak, esaterako.

**> ATXONDO**

## Axpera bideko lanak amaituko dituzte aurten

**> JOSEBA DERTEANO**

Iazko aurrekontuetatik bideratutako diru atal bat erabalita, Axperako bidean konponketa lan batzuk egin zituen Lasuen enpresak urte hasieran. Oro har, bideko zuloak estaltzeko lanak egin zituzten. Lan txiki batzuk egin barik daude oraindik, bideko erreiki biak banatuko lituzkeen marra zuria pintatzea, esaterako, eta lan horiek urtea amaitu aurretik egiteko asmoa du udalak. Horrez gainera, Apatatik Elorriorantz doan bidegorrian ere zulo batzuk daude, eta horiek aurten konpondu gura dituzte.

Esaterako, erreiki biak bereiztuko lituzkeen marra pintatzea falta da Axperako bidean

Lan horiek egiteko diru atala nondik bideratu aztertzen dabilta. Horretarako, urte osoko zein azken hilabeteetako kontuen balantzea zelan doan aztertuko dute, ondoren dirua zein ataletatik bideratu erabakitzeko. Edozelan ere, aurten ezin bada, datorren urteko aurrekontuetan lan horiek egiteko diru atala bideratuko dutela adierazi zuen Rosa Elizburu alkateak, astlehenean egin zuten ohiko udalbatzarrean.



# EPÓCA

ERREFORMAK - SUKALDEAK - BAINUGELAK -  
ALTZARIAK - DEKORAZIOA

**Zuk nahi duzun etxea  
egiten lagunduko dizugu.**

[www.epocasukaldeak.com](http://www.epocasukaldeak.com)



Telf: 946 472 012  
[epoca@epocasukaldeak.com](mailto:epoca@epocasukaldeak.com)

Madalenoste, 7  
48200 Durango





## Espainiako eta Europako banderak kendu eta erre dituzte

Elorrioko udaletxeko balkoian lau bandera ipini zituzten duela aste bete: ikurrina, eta Elorrioko, Espainiako eta Europar Batasuneko bandera. Azken bi horiek kendu eta erre egin zituzten martitzen gauetan. Udal arduradunek azaldu dute ez dutela salaketa ipiniko; bandera berriak eskatu, eta berriro ipiniko dituzte.

## Filipinetara 10.000 euro bideratuko ditu Durangoko Udalak

Nazioarteko Gurutze Gorriaren birtatez, eta garapenerako lankidetzaren programaren barruan, 10.000 euroko laguntza bideratuko du Durangoko Udalak Filipinetara. Filipinetan izandako hondamendia aztertzeke deituta, gizarte-ekintza batzordeak onartu du. PSE-EEren ekimenez aztertu da gaia, sozialistek adierazi dutenez.

## CCOOK larrialdietako beharginak babestu ditu Osakidetzaurren

Osakidetzaurre zuzendari Jon Darponek adierazi du ez dela beharrezkoa Durangoko larrialdi zerbitzuak hobetzea. Horren aurrean, CCOO sindikatuak gogoratu du Lan Ikuskaritzak arrisku psikosozialen inguruko azterketa bat egitea agindu ziola Osakidetzaurre, eta, oraindik, ez dutela horrelakorik egin. Lantaldea eta instalazioak hobetzea beharrezko ikusten du CCOOK.

## Hanburgesategien proiektuei buruzko bilera eguaztenean

Burger King eta McDonald'sek Abadiñon ireki gura dituzten hanburgesategien gaineko batzarra deitu du EHNE-Bizkaia sindikatuak azaroaren 27an, 19:00etan, Traña-Matienako kultur etxean. Bestek beste, euren ezarpenari aurka egiteko mobilizazioei buruz gogoeta egingo da.

### > IURRETA

# El Salvadorretik Bego Sopelanaren jaioterria ezagutzera etorri dira

Hogei urte eman zituen Sopelana iurretarrak Las Vueltas herrian kooperatzen

### > JONE GUENETXEA

Begoña Sopelana (Iurreta, 1944-1999) aintzidaria izan zen kooperazioan. El Salvadorren eman zituen 20 urteek aztarna sakona utzi dute Las Vueltas herriko bizilagunen artean. Rosa Cándida Alas de Menjívar herri horretako alkatea Euskal Herrian da egunotan. Sopelanak irakurtzen eta idazten irakatsi zion. "Emakume eta alkate moduan herrian dudana lidergo Begoñak ereindako haziaren fruitua da". Emozio handiz etorri dira Iurretara, haren familia eta hilobia ezagutzera. Bere herria Begoñaren lanari esker eraiki dela dio

alkateak. Miresmen eta maitasun hitzak ditu Sopelana gogora ekartzean. "12 urteko gerra amaitu zenean, errefuxiatuak herrira itzuli zirenean, aingeru bat lez agertu zen Begoña". Herria berreraikitzen iurretarrak paper garrantzitsua jokatu zuen. Emakume borrokalari eta auzartaren irudia gordetzen dute salvadortarrek. Gazteenek ere Begoña Sopelanari buruz berba egiten entzun dute.

### Analfabetismorik gabe

2012ko azaroaren 14an Las Vueltas analfabetismo bako herri aldarrikatu zuten. Deklarazio

horri Begoña Sopelanaren izena jarri zioten. Egun hura topaketa masiboa izan zen. Sopelanarekin batera, Paquito Arriaran, Jon Cortina, Ellakuria eta beste euskal herritar batzuek El Salvadorreko herritarrekin izan duten konpromisoa nabarmendu du Las Vueltas alkateak.

Memoria historikoaren inguruko ekimenak martxan jarri dituzte Las Vueltas. Interpretazio zentro bat duen kultur etxea zabaldu gura dute, Begoña Sopelana eta Paquito Arriarani monumentu bana eraiki gura dizkiete, eta ibilbide turistikoak martxan jartzeko asmoa dute.



Begoña Sopelanaren irudia El Salvadorreko eskola batean.



Alas de Menjívar alkatea, Mikel Sopelana (Begoñaren neba) eta Edith.

## Eliza katolikoa ez dute salbuetsiko OHZatik

2014an udalak ez ditu zerga eta tasak igoko

### > AITZIBER BASAURI

2014an zerga eta tasak ez igotzeko aukera eman du udalaren egoera ekonomiko "saneatuak". Horrela esan du Iñaki Totorikaguena alkateak. Dena den, izango da aldaketarik ordenantza fiskaletan: erakunde konfesionalak ez dute salbuespenik izan-

go Ondasun Higiezinaren gaineko Zergan (OHZ); animaliak jasotzea arautzen duen ordenantza ere jasoko dute, besteak beste.

"Zentzuduna" ez delako aurkeztu du Bilduk lehenengo aldaketa, eta PSE-EEk horren alde egin du, eskuduntza Aldundia-rena dela aitortu arren. EAJk ja-

rrera bera agertu du, baina abstenitu egin da. PPK kontra egin du, eta Estatuaren eta Egoitza Santuaren arteko konkordatuak gogoratu du.

Animaliak jasotzeko ordenantza, berriz, aho batez onartu dute: jasotako animaliko 60 euro kobratuko dute; udalaren esku dagoen egun bakoitzeko 10 euro.

Animaliak jasotzeko ordenantza berria aho batez onartu dute

### > MALLABIA

## Pisu neurtuko asto-proben 7. saria, abenduan

### > J.G.

Izena eman dute, dagoeneko, Mallabiko pisu neurtuko asto proben 7. saria jokatu duten parte-hartzaileek. Abenduaren 6an eta 7an, gaueko 21:00etan, eta abenduaren 8an, eguerdiko 12:30ean eta arratsaldeko 18:00etan, jokatu dituzte probak.

Abenduaren 6an, 7an eta 8an jokatu dituzte Mallabiko pisu neurtuko asto-probak

Joan zen domekan, azaroaren 17an, eguerdian, Jubiletze tabernan izan zuten parte-hartzaileek asto-probetan izena emateko azken aukera. Iñigo Landaluze, Zengotita elkarte, Iker Lejarreta, Bittorio Zelaia, Aitor de la Concepción, Peruri, Gorka de la Concepción, Satzibar eta Alegria dira abenduko sariketan Mallabian izango diren probalariak.

### > MAÑARIA

## Bigarren eskuko azokan izena emateko aukera

### > MRKEL ONAINDIA

Aurten ere egingo dute Mañarian bigarren eskuko azoka. Abenduaren 14rako antolatuko du udalak ekimena, eta bertan zerbait saldu gura dutenek badaukate dagoeneko izena emateko aukera. Azaroaren 30era arte eman ahalko da izena, udaletxean edo liburutegian.

Aurreko edizioetan ez bezala, aurten, profesionalak ez direnek

Zerbait saldu gura dutenek badaukate dagoeneko izena emateko aukera

egindako materialak edo produktuak ere saldu ahalko dira azokan. Esate baterako, etxean egindako jantziak, bitxiak, jostailuak...

Bere produktuak saltzeko postua ipini gura duenak euro bi ordaindu beharko ditu izena ematean.

### > ZALDIBAR

## Azaroaren 29an jaurtiko dute San Andres jaien hasierako txapligua

Domeka honetako arku-tiro txapelketagaz abiatuko dute jai egitaraua

### > I.E.

Datorren barikuan, 19:00etan jaurtiko du Ilargi argazki taldeak San Andres jaien hasiera iragartzeko txapligua. Azaroaren 29an, udaletxetik botako dute txapligua. Baina, horren aurretik, domeka honetan abiatuko dute jai egitaraua: domekan, 09:00etatik 13:30era, arku-tiro

txapelketaren 16. edizioa egingo dute, kiroldegian. Herriko Arku Taldeak antolatu du ekitaldia.

Behin azaroaren 29an jaien hasiera ofiziala eginda, hiru eguneko jai programazioa izango dute aurretik. Barikuan, txapligua bota eta gero, koral elkarte txistulariekin eta buruhandiekinekin kalejira egingo

dute, eta 20:00etan, Helmuga elkartearen eskutik, pintxo jana izango da Olazarren.

Azaroaren 30erako eta abenduaren 1erako ere, egun osorako ekintzak antolatu dituzte: umeentzako parkea, Gaztetxe-koek antolaturiko triki-bertso-poteoa, eta mendi bizikleta ibilbaldia izango dira, esaterako.



# ▶ Berbaz

**Zenaida Isco, Jose Yuk'we Pe'te eta Viviana Gonzalez** | Nasa yuwe hizkuntzaren irakasle eta bultzatzaileak

**Andoni Barreña** | Hizkuntzalaria. Munduko Hizkuntza Ondarearen Katedrako eta Garabide elkarteko kidea

## “Garrantzitsua da umeek lehen urteetan hezkuntza nasa yuwez jasotzea”

Kolonbiako Nasa herriko kideak Durangoko hainbat ikastetxe bisitatzen ibili dira. Euskal Herrian Hizkuntzak biziberritzeko estrategiak aditu titulua lortzeko ikasten dabilta Zenaida Isco, Jose Yu'kwe Pe'te eta Viviana Gonzalez.



“

*Garrantzitsua da gu hona etortzea, baina baita hemengoak hara joatea ere”*

Durangoko Udalagaz elkarlanean, udan, bertoko irakasle bi joan ziren formazio saioak egitera. Zer moduz?

V.G.: Harrigarria izan zen, eurentzako zein guretzako. Lehenengo *Luu x le' xkwe* ikustera eroan genituen, ongietorria emateko, eta orduan hasi zen esperientziak elkarrekin trukatze formazioa. Oso saio praktikoak izan ziren, jolas eta kantuen bidez, hemen euskara zelan transmititzen den kontatu ziguten. Aldi berean, kantuak sortu genituen nasa yuwez. Saio horiek sustatzaileekin egin genituen, eta baita, oraindik, nasa hizkuntzaren aldeko apusturik egin ez duten irakasleekin ere. Garrantzitsua izan zen, kontzientzia hartu zutelako umeen lehen urteetan hezkuntza nasa yuwe hutsez egitearen garrantzia. Gu euskararen esperientzia ezagutzera etortzea bezain garrantzitsua da hemengo pertsonak hara joatea. Hemen hiru gaude, baina hara joanda, zabal-kundea handiagoa da.

**Andoni Barreña:** Irakasleekin batera beste bi pertsona joan ginen, eta laurok geratu ginen harrituta. Itzela izan zen taldearen interesa eta euren gogoa. Ez da ahaztu behar han oso egoera soziopolitiko gogorra bizi dutela. Indakeria dute alde guztietatik: armada, gerrilla, narkotrafikoa, paramilitarrak... Horrelako egoera batean bizi eta hizkuntzaren biziberritzean lan egitea zaila da, eta asko miresten dut egiten duten lana. Gogo horretatik, eta baita natura, bizitza eta komunitatea bizi duten modutik ere, asko daukagu ikasteko.

### > AMAIA UGALDE

Zenaida Isco lehen hezkuntzako irakaslea da, Jose Yu'kwe Pe'te eta Viviana Gonzalez, hizkuntza sustatzaileak. CRIC Consejo Regional Indígena del Cauca elkarteko kideak dira hirurak. Andoni Barreña hizkuntzalariagaz Kurutziaga ikastolara bisita egin eta gero erantzun dituzte galderak.

**Irakaslea zara zu, Zenaida. Zer egoeratan dago nasa yuwe hizkuntza hezkuntza arloan?**

Z.I.: Ni LHko irakaslea naiz, eta nire hizkuntza idazten, irakurtzen eta berba egiten irakasten dut. Nire komunitatean ume askok ez dakite nasa yuwe hizkuntza. Historian, debekatu egin dute gure hizkuntza, eta gurean, helduok hitz egin hitz egiten dugu, baina guraso askok ez diete seme-alabei transmititzen. Gurean hondamendi natural bat izan genuen, lur-jausia, eta gure lurrak utzi behar izan genituen. Lurrean berriak, gaztelaniak nagusitasun handiagoa dauka,

eta transmisioaren eten hori nabariagoa da.

**Nasa yuwe hizkuntzaren aldeko jarrerarik badago?**

Z.I.: Gure kasua oso gogorra da, gure artean gatazkak sortu direlako. Familiak pentsatzen dute garrantzitsuena gaztelania oso ondo ikastea dela, eta gure hizkuntza atzerapenagaz lortzen dute. Galdetzen digute ea zergatik molestutzen dugun horrenbeste hizkuntza indartzearen gaiarekin. Motibazio tailerrak egiten gabilta jarrera horiek aldatu guran. Eskolan umeek ikasten dute, baina eskola soilak ez du umeek nasa yuwez berba egitea bermatzen. Laster, 2 urtetik 6 urtera bitarteko haurrei nasa yuwe hutsezko eskolak eman nahi dizkiegu.

**Lekuaren arabera, hizkuntzaren egoera desberdina da, ezta?**

Jose Yu'kwe Pe'te: Nire komunitatean, hizkuntza egunerokoa da etxean eta espazio sozialetan. Umeei, gainera, kostatu egiten

“

*Familia batzuek pentsatzen dute garrantzitsuena gaztelania oso ondo ikastea dela”*

zaie gaztelaniaz berba egitea. Eskolan irakasle batzuek nasa yuwez hitz egiten dute, eta testuingurua hobea da.

**Viviana Gonzalez.:** Beste leku batzuetan txarragoa da. Toribido inguruko leku batzuetan, nasa hiztun bakarrak aitita-ama batzuk dira. Inguru horretan galdu egingo da ziurrenik.

Jose Yu'kwe eta Viviana, zuek hizkuntza sustatzaileak zarete. JY. P.: Bai, hizkuntza eta kultura sustatzaileak gara. Familieta- ra, eskoletara eta komunitateko

asanbladetara joaten gara, eta hizkuntza erabiltzearen garrantziaz berba egiten dugu. Ikerketan ere egiten dugu lan, material propioak egiteko eta nasa yuwe hizkuntzan galtzen dabilta hitzak, toponimia... ikertzeko. Diagnostiko bat egiten ere bagabiltza, erabilpenari buruzko datu estatistiko batzuk edukitze- ko. Prozesua 2011n hasi genuen ACIN (Cauca iparraldeko nasa herriaren elkarte) erakundearen barruan.

**Esperientzia pilotu bat hasi duzue ume txikienekin.**

JY. P.: Bai, *Luu x le' xkwe*. Eskolen aldean, oso desberdina da; kultura balioak bizitzeko esperientzia izatea gura dugu. Hezitzaile guztiak dira nasa hiztunak. Bertako elikagaiak bultzatzen ditugu, eta kulturen murgiltzea da helburu nagusia. Thè'wala mediku tradizional batek laguntzen digu umeen ikasketa prozesuan. Umeen ama hizkuntza gaztelania da, eta hasi gara emaitzak ikusten.

**GOIZTIDI DIAZ**

EAJ


**Azoka**

Badator, urtero legez, euskararen eta euskal kulturaren ekitaldien artean durangarontzat garrantzitsuenetarikoa (eta maitagarrienetarikoa) dana, hain zuzen be, Azoka. Datorren hileko hasierako egunetan (aurten 5etik 8ra arte), Durango gure kulturaren hiriburu bihurtuko da. Gure Uria Euskal lurraldeetako txoko guztietatik etorririko euskaltzalez beteko da, eta Kulturaunitbertsoaren gailurrean kokatuta egongo gara. Eta hori guztia Gerediagari esker urtero urtero gertatzen ohi da. Gerediagaren lan gogorrari zor jako meritua, eta, baita durangarontzat esker ona be. Gerediagaren eguneroko ahalegina hainbat ekimenetan loratzen da, noski, baina Durangoko Azoka antolatzeke urteko egun orotan egindako beharra guztiz da goraiatzeko modukoa, eta zutabe hau aprobetxatu nahi dot eurei, EAJren izenean, gure eskerrik beroenak helarazteko.

Gerediagak badaki inguruabar guztiak kontra dagozanean lan egin eta helburuak lortzeko ahalegina egiten. Sobran frogatu izan dau urteetan. Frankismoaren garaian, errepresioaren aurpegi ilunari tinko begiratuta, elizpean sortu eben Azoka, Euskal Liburu eta Disko Azoka. Eta ordutik aurrera etenbako lana egin dabe gure kulturaren alor anitzetan. Oraingoan inguruabar ekonomikoei be aurre egin beharko deutse, egun bizi dogun egoeraren ondorioz erosleak urritu eta erosketak eskastu egin baitira. Ez dagoz bakarrik, noski, Herri Erakundeek, euren eginbeharrari jarraituta, dirulaguntzak bideratzen jarraitzen dute, hein handiago edo txikiagoan. Izatez, gehienek euren ekarpena iraunarazi dabe, besteak beste, Durangoko Udalaren kasua. Batzuen euskaltzaletasun pose hutsetatik hartarago dagoen konpromisoa, pankartetatik hartarago, irudikeriatik hartarago.

Jendez gainezka izango dogu Durango, eta gure Uriak, bere kaleetan, euskaltzaletasunaren mamia irudikatuko dau Azokari esker, Gerediagari esker. Euskarari eta euskal kulturari arnagunea emoteko egun eta leku aproposak dira, batzuek erantsi nahi deuten politikieriegandik aske.

**Asanblada irekia Burger-King eta McDonald's-en proiektuen inguruan**

Zabor-janariaren bi multinazionalak, Burger Kingek eta McDonald'sek, Abadiñon denda bana ipintzeko proiektuak aurkeztu dutela jakin dugu azken asteotan. Zehatzago berba eginda, esan behar da Burger Kingen proiektua Eroski berak aurkeztu duela. Erakunde eta pertsona askok uste dugu horrek eragin kaltegarria izango lukeela gure eskualdean. Multinazional horiek nekazaritza eta elikadura industrialak bultzatzen dute eta gure produktuek jasaten dituzten prezio beherakaden eragile ditugu. Merkatariaik bailiran aurkezten dute euren burua, ostalaritza aktibitatean aritu ahal izateko. Euren irabaziak handitzen dituzte lan baldintzen prekarizazioa bultzatzen dutelako, eta euren produktuen prezio merkea eskaintzen duten kalitate eskasean oinarritzen da. Gure apustua abeltzaintza eta nekazaritza sostengarria dira, kalitatezko elikagaien aldeko apustua egiten dugu, elikagaiok maila lokalean kontsumituak izan daitezzen. Behar beharrezkoa da elikagaien ekoizpena, bertako merkataritza (harategiak, dendak...) eta herrietako ostalaritza bultzatzea.

Gai honi buruz berba egiteko asanblada deitu du EHNE-Bizkaia. Asanblada horretan Burger King eta McDonald's dendak ipintzeko proiektuen inguruan dagoen informazioa azalduko da; egunero funtzionamenduan erabiltzen dituzten lan mota eta baldintzak azalduko dira; eta eskualdean euren ezarpenari aurka egiteko antolatu daitezkeen mobilizazioei buruzko gogoeta egingo da. Asanblada azaroaren 27an izango da, Matienako Errota kultur etxean, arratsaldeko 19.00tan. Interesa duen edozein pertsona gonbidatuta dago.

EHNE Bizkaia

**Hekimen**


Ateak Irekiren webgunearen itxiera salatu du Hekimenek informazio askatasunaren aurkako neurritzat jo du itxiera

Hekimen Euskal Hedabideen Elkarteak salatu nahi du Ateak Ireki izeneko webgunearen itxiera, eta elkartasuna agertu nahi die atari hori martxan jarri eta bertan lanean aritu diren guztiei.

Hekimenek informazio askatasunean sinesten du. Komunikabide bat itxteak askatasun horren aurka jotzen du bete-betean, komunikabideek horixe egiten dutelako, informazioa askatasunez zabaldu, hedatu eta gizarteratu.

Ateak Ireki ekimenaren galera, alde horretatik, herriarrek informatuak izateko daukaten askatasunaren kontra doa.

Donostian, 2013ko azaroaren 14an

**Herri Ekimeneko Euskal Hedabideen Elkarteak**

**Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:**

 Bixente Kapanaga 9, 48215  
**astekaria@anboto.org**

- Izen-abizenak • telefonoa
  - helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia
- Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpidean jarraituz zuzenduta publikatuko dira.

**-DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO-**
**Laguntzaileak:**


Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du


**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**  
 Kultura Sailak  
 (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)  
 diruz lagundutakoa

**anboto**  
 komunikabideak

 Bixente Kapanaga, 9  
 48215-Iurreta  
 (Bizkaia)  
 Tel.: 94 681 65 58  
 Erredakzioa:  
 94 623 25 23  
 Publizitatea:  
 94 621 79 02  
[publi@anboto.org](mailto:publi@anboto.org)

 2013ko azaroaren 22a  
 11. urtea - 523. alea

**Zuzendaria:**

 Jone Guenetxea.  
**Erredakzio burua:**  
 Joseba Derteano.  
**Administrazio burua:**  
 Itziar Belar.  
**Administrazioa:** Miren Abasolo.  
**Publizitatea:** Goretzi Alonso,  
 Amaia Huarte, Itxaso Altuna.  
**Erredakzioa:** Aitziber Basauri,  
 Itsaso Esteban, Markel Onaindia  
 eta Amaia Ugalde.  
**Maketazioa:** Eider Alberdi.  
**Zuzentzailea:**  
 Jon Ander Urkiaga.  
**Argazkilaria:** Kepa Aginako,  
 Zaloa Fuertes.

Lege gordailua: BI-2268/01 ISSN: 1578-7028 Tirada: 10.600 ale

**Mikel Onandia** | Durango, 1983. | Artearen historialaria

## “Liburua egitean artistekin hartu-emanean gozatu dut gehien, jendea ezagutzen”

‘Artea Durangaldean gaur’ liburua argitaratu du Mikel Onandia durangarrak

### > ITSASO ESTEBAN

Joan zen egunean, Durangoko Arte eta Historia Museoa aurkeztu zuen Mikel Onandia durangarrak urtebeteko lanaren emaitza den liburua. Jon Kepa Garro zinegotziak eta Ismael Manterola Artearen historia irakasleak lagunduta jardun zen Onandia aurkezpen horretan. Durangaldeko 44 artistaren katalogoa da osatu duena.

### Gustura aurkezpen ekitaldiagaz eta liburuagaz?

Bai, oso gustura. Egia esan, nik uste dut liburu polita geratu dela, nahiz eta, hori gero irakurleak esan beharko duen. Baina, nire aldetik, pozik nago egindako lanak emandako emaitzagaz.

### Zein da liburuaren ekarpenik inportanteena?

Nagusiena, Durango eta inguruetako sortzaile garaikideei ikusgaitasuna ematea. Bakoi-tzak bere ibilbidea duen arren, proiektu unitario honetan artista horiek guztiak batzea.

Joan zen eguneko aurkezpeneko entzuleetariko asko, liburuan agertzen diren artistak dira. Zer erantzun jaso duzu, behin liburua amaituta, artista horiengandik?

Jendea pozik geratu da, orokorrean: erantzuna positiboa izan da. Argi dago bakoitzak bere liburua egingo zuela, eta hautaketarekin ados ez dagoenik ere egongo da, baina nire hautaketa da hau, ez besterik: honen hari-ra debate txiki bat sortzen bada, ondo etorria izango da. Azken finean, hau ez da behin betiko kanon bat, hau, arteari buruz berba egiteko aitzakia bat da.

### Durangoko Udalak ematen duen sorkuntza bekara aurkeztu zenuen proiektua.

Horrela da, bai. Egitasmoa aurkeztu nuenean, nire proposamena sorkuntzari baino gehiago ikuspegi teoriko bati loturikoa zela pentsatuta, ez nuen espero aukeratuko nindutenik. Ekoizpen gastuetarako izan da 7.500 euroko diru-laguntza, osorik.

### Zeintzuk izan dira prozesuko unerik gozagarrienak eta zeintzuk gogorrenak?

Artistekin hartu-emanean gozatu dut gehien, jendea ezagutzen. Izaeraz nahiko lotsatia naizenez, hasieran ez zait erraza egin, eta topiko bat dirudien arren, asko ikasi dut liburu hau egiten. Momentu zailenak, beharbada, bukaerako errebasoak-eta.

### Asko dira liburuko 44 artistak?

Asko dira, baina hautaketa bat egin behar izan dut. Artista gutxiri orrialde asko eskaintzea baino, ahalik eta sortzaile gehien biltzea izan da nire hautua. Ahalik eta jende gehien sartu nahi izan dut, eta hautaketa eklektikoa izan zedin ere saiatu naiz. Uste dut horrela hobeto islatzen dela errealitatea.

### Era guztietako arte adierazpideak agertzen dira liburuan.

Bai, zelanbait Durangaldeko sorkuntzaren aniztasuna frogatzen du liburuak: hainbat belaunaldi eta diziplinatako jendea



sartu dut: pintura figuratibo eta tradizionalenetik abstrakzioaraino dauden guztiak, eskultura, instalazioak, arte kontzeptuala, argazkigintza, zinemagintza, ilustrazioa...

### Erakusketa bat antolatzen zabilta abendu-urtarrilerako.

Liburuan dauden artisten lanen hautaketa txiki bat izango da, bai. Liburuaren erakusgarri txiki bat eskainiko dugu.

## Manterola: “Praktika artistikoa ulertzeko saiakera da Onandiarena”

Liburuaren kalitatea goraipatu zuen Ismael Manterola historia irakasleak



Jende asko gerturatu zen, joan zen egunean, Durangoko museoan aurkezpen ekitaldira.

Mikel Onandia filosofia irakaslea da institutu batean, eta hainbat aldizkaritan idazten ditu arte kritikak. Arte kritikari lanean diharduenak publikoaren eta artisten arteko zubiak eraiki behar dituela dio. “Ez umeen-

tzako berba eginda, ezta diskurtso ilunekin ere”. Artearen inguruan berbagaia sortu nahi du *Artea Durangaldean gaur* liburuagaz Onandiak, “historia lokala errebindikatu, eta testigantza historikoa uzteko”.

Durangaldeko arte garaikidearen historiagaz zabaltzen du liburua Onandiak, eta garen horren laburpena egiteko eskatuta, azalpen interesgarria eskaini du: “Modernitate XX. mendearen hasieran

agertu zen Euskal Herrian. Une hartan, landa eremu bat zen Durangaldea, periferia bat. Hemen ez zegoen arte modernorik. Baina, hemengo jendea eta paisaiak margotzera zetozen artistak (Regoyos, Arteta, Amárica...) hasi ziren agertzen. Horrek pintatzeko beste era bat ekarri zuen, 36ko Gerrak apurtu zuena. Gero, 36ko Gerraren ostean, kulturalki oso pobrea zen garai batean, herri kultura sustatzen hasi zen jendea. Gerediaga Elkartea sortu zen, esaterako, 65ean. Garai horretan Leopoldo Zugaza ere oso figura erreferentziala izan zen, eta erakusketa inportanteak antolatut zituzten: Txillida, Amezttoy, Ibarrola...”.

Durangaldeko artearen gailurra orain arte hori izan den galdetuta, argi dauka Onandiak: “Orduko giro artistiko eta herri indarra gaur egun ez dago, baina erakunde eta diru-laguntza gehiago dago: ezberdina da”. Era berean, belaunaldi bakoitzari berea iruditzen

zaiola beti inportanteena azpimarratu du Onandiak.

Hain zuzen, Mikel Onandiak liburu honetarako egindako “dokumentazio lan handia, eta zentzua emateko egindako saiakera” nabarmendu zituen, joan zen asteko aurkezpenean Ismael Manterola historialari lagunak: “Mikelek egindakoa ez da zerrenda bat; praktika artistikoa ulertzeko saiakera bat egin du, eta diskurtso berriak sortzeko ahalegina da”.

### Kalitate handiko irudiak

“Oso diseinu zainduko liburua da”, azpimarratu zuen Ismael Manterola irakasleak liburuaren aurkezpenean: “Arte liburuetan asko baloratzen da hori, eta oso kalitate handiko irudiak bildu ditu”. Manterolak esan zuen bereziki deigarria egin zaiola 70 eta 90eko hamarkadetako “eferbeszentzia kulturala; artea hirietan bakarrik gertatzen dela ematen du, eta liburu honek erakusten du hori ez dela egia”.

> **AURKEZPENA**

## Eskozia eta AEBetako diaspora ere Durangoko euskal kulturaren plazara

AEBetan euskal disporari buruz lan ugari egin duen William Douglasssek jasoko du Gerediaga Elkarteak Durangoko Azokan ematen duen Argizaiola saria: euskal kulturaren alde egindako lana eskertuko diote

> **ITSASO ESTEBAN**

Hamabost egun barru abian izango den Durangoko Azokaren aurkezpen ofiziala egin zuten atzo, azoka egunetan "euskal antzerkigintzaren plaza" izango den San Agustin kulturgunean. Azoka antolatzen duen Gerediaga Elkarteak Nerea Mujika lehendakaria, San Agustin kulturguneko Itziar Elias Szentokia gunearen arduraduna, eta azoka babesten duten erakunde publikoen ordezkariak elkartu ziren aurkezpen horretan: Cristina Uriarte Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburua, Ana Castro Bizkaiko Foru Aldundiko euskara zuzendaria, eta Aitziber Irigoras Durangoko alkatea.

Euskal kulturaren ekoizleek "Durangoko Azokan egon nahi dute, euskal kulturaren plaza nagusia delako", azpimarratu zuen Mujikak, 48. Durangoko Azokaren datuak zenbakitan emateaz batera: denera, 355 nobedade dakartzate ekoizleek Durangoko Azokara: 226 liburu, eta 68 disko. Aurtengo uzta

erakusteko, 238 erakusmahai ipiniko dituzte argitaletxe eta ekoiztetxeek; iaz baino 15 stand gutxiago egongo dira, beraz.

Durangoko Azoka 532.000 eurogaz antolatu dute aurten, iaz baino %10 gutxiagogaz

Durangoko Azoka 532.000 eurogaz antolatu dute, aurten. Iazkoagaz alderatuta, %10 txikiagoa da kopuru hori. Zailtasun ekonomikoez mintzatu zen Nerea Mujika, eta, bere hitzetan, "aurrekontu honekin nekez antolatu daiteke Durangoko Azoka bezalako ekitaldi bat: euskal kulturaren erreferentziakoa den azoka ezin daiteke estu eta larri ibili, eta beharrezko du denon babesa". Azoka diruz babesten duten erakunde publiko eta pribatuekin batera, "urtero Durangoko Azokara etortzen

diren milaka euskaltzaleren eta ehunka lanen inplikazioa" goraipatu zituen Gerediaga lehendakariak.

**Argizaiola, Douglassi**

Atzoko aurkezpenean aurreratu zuten, "urteetan euskal kulturari egindako ekarpena" eskertuko dio, aurten, Gerediaga Elkarteak Renoko William Douglass antropologoari. Aben-

duaren 6an, Durangoko San Agustin kulturgunean egingo duten galan emango diote Argizaiola ikerlari estatubatuarrari. "Bizitza guztia euskal diasporari buruz ikertzen emandakoa da Douglass, euskal kulturaren enbaxadorea da AEBetan", azpimarratu zuen Mujikak. Durangoko Azokagaz ere beti harreman estua mantendu du, gainera, Douglasssek.



Hamabost egun barru zabalduko dituzte Durangoko Azokako ateak.

Euskal Herritik Ameriketarako emigrazioari ez ezik, Eskoziako politika eta kulturari ere gerturatuko zaio Durangoko Azoka. Herrialde horri buruzko hainbat ekimen izango dira Durangoko Azokan.

Azokaren inagururazio ekitaldian, abenduaren 5eko Areto Nagusiko 18:30etako ekitaldian, Eskoziako doinuak izango dira entzungai, eta Euskal Herria eta Eskoziako batzen dituen Jaun Zuriaren kondairari buruz ariko da Joxemari Carrere: Bizkaiko lehenengo jauna Eskoziatik etorri zela kontatzen du antzinako istorio horrek. Abenduaren 6an, bestalde, *Eskoziatik Euskal Herriara: Europako autodeterminazio prozesuak* izeneko mahai-ingurua egingo dute, 12:30ean, Areto Nagusian.

**Gaelikoa, antzerkitik**

Atzo Azokaren aurkezpen ofiziala egin zuten lekuan, San Agustino Szentokia gunean, Catriona Lexy Campbell aktore eta idazle eskoziarra ariko da abenduaren 8an. Gaelikoz idatzirik antzerkigintzari eta egoera politikoaren eraginei buruz jardungo dira, besteak beste, mahai-inguru horretan. Oier Guillan eta Ixabel Etxeberriak ere parte hartuko dute eztabaida eta hausnarketa saio horretan, Ipar eta Hego Euskal Herriko antzerkigintzaz gogoetatuta.

Hika Antzerki Taldea  
**PALABRAS**  
Azaroaren 24an • 19:00etan  
San Agustin KULTUR GUNEA  
DURANGOKO GELIA

**PLATERUENA** Durangoko Kafe Antzokia  
www.plateruena.net

**AZAROAK 22 - 20:00etan** DOAN  
**LOKALETIK AT**  
ZEBEL (Durango / Rock)  
DAMUDOT (Zaldibar / Trashmetal)

**AZAROAK 24 - 19:00etan** DOAN  
**AIKO ERROMERIA**  
ERROMERIA

**AZAROAK 27 - 20:00etan** DOAN  
**JUPITER JON** KANTUAREN KANTOIAN  
BERBALDI MUSIKATUA

Eguneko menua astelehenetik larunbatera  
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.:946 030 300

**IBAIZABAL IKASTOLA (DURANGO)**

UR INSTALAZIOETAKO SOROSLE IKASTAROA  
290 ordu.  
Astelehenetik ostiralera, 15:00etatik 19:30era.  
**Hasiera:** 2013ko abenduaren 9an.  
**Lan aukerak:** Igerileku naturaleko eta igerilekuko soroslea.

DOAKO IKASTAROKO TITULU OFIZIALAK  
Izen-ematea:  
**lanbide.net**  
Harremanetarako:  
**ikastaroak@ibaizabalikastola.org**  
Tel: 946 215 877

**Itziar Elias** | Szenatokia gunearen arduraduna**Arantza Arrazola** | San Agustin kulturguneko arduraduna

## Durangoko Azoka teatroa ere badelako

Szenatokia gunea arte eszenikoen plaza da Durangoko Azokan. Egun osoko antzerki maratoia eta Eneritz Artetxe aktorearen

“Durangoko Azoka gure antzerkiaren azoka ere bada”, irmo dio Itziar Elias, Euskal Herriko Antzerkizale Elkartearen kideak (EHAZE). Szenatokia Durangoko Azokako arte eszenikoen gunearen arduraduna da Elias, Arantza Arrazola, San Agustin kulturguneko arduradunarekin batera. Izan ere, Arrazolak garbi du “arte eszenikoen plaza” eduki behar duela azokak, eta egun horietan San Agustin antzerkigileentzako gune bihurtzen da urtero, aurten hirugarrenez. “Euskal antzerki sortzaileek euren lanak erakusteko aukera izan behar dute Durangoko Azokan, jendeak aukeratu dezan”.

**Antzerkia eta txakolina**  
Antzerkirako gosea pizteko antolatuta dute antzerki maratoia abenduaren 7an, larunbatean, eta sortzaileekin tertulian arituta, txakolinarekin ez-tarria bustitzeko aukera egongo da.

**I. Elias:** Zortzi talde arituko dira guztira, lau goizean, eta beste lau talde arratsaldean. Bakoitzak bere antzezlanaren zati bat egingo du, hamabost minutuko lagina, trailer moduko bat. Hori bukatzen denean, aukera egongo da pintxo eta txakolin bat partekatzeko.

**A. Arrazola:** Oihala zarratu, eta atzean hurrengo taldekoak lanean dauden bitar-

tean, beste aktoreak jaitsi egiten dira, eta giro oso polita egoten da.

**I. Elias:** Gainera, interesa daukanak galdetzen dizu non ikusi ahal den osorik, eta gertutasun hori lortzen duzu publikoarekin.

**A. Arrazola:** Jendea poltsekin etortzen da Landakotik, eta, agian, obra hasita dago. Apur bat itxaron, eta hurrengora sartzen denean “hara, zeinen ondo! Txakolin bat” esaten du.

Maratoiaren gosea aseko du, berriz, azken egunean Eneritz Artetxe aktoreak. ‘Konpota’ antzezlana estreinatuko du Szenatokian abenduaren 8an, Zubia proiektuaren barruan. Eva emakumean oinarritutako Philippe Gaulierren bazarriketa da, eta, lehen aldiz, autore hau euskaraz ikusi ahal izango da, Antton Lukuren itzulpenari esker. Entseguak ikusteko aukera izan du Arrazolak, eta irribarre maltzurra egin du. “Gustatuko zaizue”.

### Eskoziako antzerkiak

Gainera, Gaelikoz egiten den antzerki-gintzari buruz mahai-ingurua egingo da azken egunean. Eskoziara aurtengo herrialde gonbidatua denez, Catriona Lexy Campell aktore eta idazlea gonbidatu dute Azokara. Kasu honetan, San Agustingo hallean eta kafeak lagunduta.

**I. Elias:** Eskozian antzezlanak gaelikoz egiten dituen elkarre bateko arduraduna da Catriona Lexy Campell, eta berarekin batera Hego eta Ipar Euskal Herriko antzerkilari bana egongo da. Egoera politikoak antzerkiarengan duen eragina izango da gaia, eta antzerkiaren eraginaz politikan ere hitz egingo dugu.

**A. Arrazola:** *Kafe eta Berba* deitu diogu, San Agustingo hallean izango delako, kafe bat hartu bitartean.

**Publiko gazteena ere erakartzeko asmoz, abenduaren 5ean egingo den ikasleen egunarekin bat egin du Szenatokiak, eta antzoki bat barrutik nolako den erakutsiko die ikasleei.**

**A. Arrazola:** Karrika Durangoko antzerki taldea eszenatokian entsegu bat egiten egongo da, eta ikasleek ikusiko dute zuzendariak ematen dituen aginduak. Gero, eszenatoki atzera eroango dituzte, argiak, kamerinoa eta abar ikusteko.

Durangoko Azokako unerik garrantzitsuenetako baten agertoki ere bada Szenatokia, Argizaiola saria hor eman go dutelako, abenduaren 6an, ostiralean. Horregatik, antzezlana uztartuko duen gala izango da, Josu Camara aktore eta EHAZE elkartearen lehendakariak gidatuta.

### Poteotik gertu

Landako Gunetik urrutien dagoen gunea izan arren, Alde Zaharraren bihotzetik gertuen dagoen espazioa da Szenatokia. “Alde Zaharreko poteo kalea ez badago urrun, hau ere ez”, dio Arrazolak. Eta azokari balio erantsia ematen dio Eliasen ustez: “Durangoko Azokara etortzen dena ez da etortzen liburu bat erosi eta

etxera joateko. Egun pasa egitera etortzen zara azokara”, eta barrez gaineratu du, “Landako barruan buruko mina egiten zaizunean, paseotxo bat eman eta Szenatokira etorri zaitezke haize pixka bat hartzen”.

## SZENATOKIA EGITARAUA

### ABENDUAK 5, EGUENA.

Ikastetxeentzako bisita gidatuak antzerkia barrutik ezagutzeko, Kariakaren eskutik. Hiru pase: 10:30, 12:00 eta 14:00.

### ABENDUAK 6, BARIKUA.

Argizaiola Gala, 20:30ean. Gerediaga Elkartearen antolatuta eta Josu Camararak zuzenduta.

### ABENDUAK 7, ZAPATUA.

Antzerki maratoia. 15 minutuko laginak. 12:00etatik 14:00etara lau antzezlan zati eta 18:00etatik 20:00etara beste lau.

### ABENDUAK 8, DOMEKA.

‘Kafe eta Berba’ hitzaldia, 17:30ean. Egoera soziopolitikoak zein eragin du antzerkian eta antzerkiak egoeran. Catriona Lexy Campell, eta Ipar eta Hego Euskal Herriko antzerkilariak.

Estreinaldia, 19:00etan. ‘Konpota’, Eneritz Artetxe. 2012ko Zubia proiektuan aukeratua.

## &gt; DOKUMENTALA

## ‘Bestearen begirada’: kulturarteko fruituak

Txelu Angoitiak gidaturiko argazki tailerrari buruzko dokumentala eman zuten Plateruenean

## &gt; ITSASO ESTEBAN

2012-2013 ikasturtean Txelu Angoitia argazkilari durangarrak gidatu zuen argazkigintza tailerrean bezala, giro epelean elkartu ziren, joan zen barikua

iluntzean, Plateruenean, hainbat lagun. Kandelen argitan. Jatorri ugaritako gazteak ziren ekitaldian elkartu zirenetariko asko: Angoitiaren argazkigintza tailerraren aitzakian, elkar



Jatorri ugaritako gazteak elkartu ziren Platerueneko ekitaldian. K.Aginako.

ezagutu, eta lagun egin direnak. Iazko udazken-neguko tailer horri buruzko, eta bizitako kulturarteko esperientziari buruzko testigantzekin Angoitia argazkilariak osaturiko *Bestearen begirada* dokumentala estreinatu zuten barikuan.

Argazkigintza tailer honetan elkarturiko lagun bik Agurra elkarrekin dantzatuta hasi zuten Platerueneko ekitaldia, eta dokumentalaren emanaldiaren ostean, Afrikako danbor doinuek lagunduriko Mikel Laboaren *Txoria txori* kanta eskaini zuten tailerreko partaide bik. Ekitaldia aurkezten jardun zuen Eneko Sagardoy aktoreak aipatu zuenez, tailerra elkar ezugutzeko bidea izan dute, “eta nork jakin elkarlan horrek etorkizunean zer fruitu eman dezakeen”.

Durangon jaiotako gazteak eta gazte etorkinak batzeko topagunea izateko eskaini zuen Durangoko Udaleko Immigratzio Sailak argazkigintza tailerra, “bestea aurkitu eta onar-

tzea” bilatzen duen tailerra. Izan ere, dokumentaleko testigantzetako batek dioen bezala, aurreiritziek begiak ixtera garamatzate, sarri. Tolerantzia aktiboa eta kulturen arteko elkarriketa landu dituzte argazkigintza tailerrean, eta besteen begiradagaz aberastu egin dira: elkarren bizitzen berri zuzena izanda, bestearen errealitatea eta begirada ulertu, eta bestearen azalean ipintzea errazagoa dela frogatu dute.

## &gt; 2012ko esperientzia

Txelu Angoitiak gidatu zuen 2012an Rebelarte argazki tailerra ere. Durangon bizi diren Senegal eta Marokoko 10 gaztek hartu zuten ekimen hartan parte: identitateaz gogoetan jardun zuten tailerrean, eta argazkiekin eta euren bizitzako pasartekin, erakusketa paratu zuen San Agustin kulturunean. Lehengo edizio hartan parte hartu zutenetako batzuk ere jardun dira ikasturte honetan.

## GEURE DURANGALDEA

ARANTZA  
ARRAZOLA  
eta MAIDER  
LARRAÑAGA

San Agustin



## ‘Hamlet’, antzerki uholdea

Hain arraroa da euskal antzerkiak masa fenomeno bat abiaraztea, gertatzen denean kontatu beharra dagoela! Eta atzera gertatu da, oraingoan Artedrama, Dejabu eta Le Petit Théâtre de Pain konpainien *Hamletekin*.

Arriagan 600 ikusle, Donostiako Gasteszenan leporaino betetako 4 saio, ia herri guztietan “ez dago sarrerrarik” zintzilikatu behar izan dugu. Durangon Azpeitiko jendearen erreserbak ere izan genituen!

Hain da sendoa hiru talde horien elkarlana, ezen, *Hamlet* estreinatu aurretik, 30 emanaldiko bira itxita zuten Euskal Herriko antzokietan behar.

Datorren urtean Sareak (EAEko antzoki publikoak koordinatzen dituen erakundeak) estatistikak aurkezten dizkigunean, euskarazko antzerkiaren gorakada ikaragarria nabarmenduko du: *Hamlet* uholdearen eragina izango da. Hobe bai, beti hala balitz!

Eta askoz hobeto antzerki ikuskizunei buruz ere hala berba egiten hasiko bagina, “gustatu zait”, “amaiera petrala izan du”, “gehiago espero nuen”... Alegia, zineaz berba egiten dugunean bezala.

Oraindik ikusteke duzuenontzat: gaur bertan Zornotzan, bihar Berrizen, eta Elorrioren 2014an. Beraz, aitzakia gutxiago eta teatro gehiago: On egin diezazuela!

## &gt; KRONIKA KANTUAREN KANTOIA 2013, PLATERUENA. NAPOKA IRIA

## Napoka Iria: Konplexurik gabe, ezer ezkutatu gabe

## &gt; MARKEL ONAINDIA

“Biluzik, ezer ezkutatu gabe, zure gorputzaren jabe eta zure

gidari”. Horrela dio Napoka Iria taldearen disko berriko letraketako batek. Miren Narbaiza

eta Ander Mujika dira Napoka Iria, eta sinismen handia daukate euren musikan. ETBko



Napoka Iria Eibarreko taldeak disko berriko zenbait kanta eskaini zituen.

*Tumatxak* saioan agertzeagatik fama handiagotu egin zaien arren, aspalditik dabilta ekinean. Eguaztenean, esaterako, 2008an Japonia bisitatu zutela kontatu zuten. Japonian euskaraz? Bada, bai. Euskaraz kantatzearen konplexua, hemen, Euskal Herrian dagoela uste dute, ez kanpoan.

Gainontzekoen edo moden menpe egon beharrean, euren sinismen eta sentsazioei kasu egiten diete. Eta erakutsi dute horrela ere arrakasta lortu ahal dela. Konplexurik barik azaldu zuten lana utzi, eta disko berria grabatzera dedikatu direla oso-osorik, urtebetez.

Solasaldiaz gainera, zuzenean jotako abestiekin euren unibertso berezira bidaiatzeko aukera izan genuen. Gitarra soinu eta ahotsetan harrapatuta. Istorio ilun eta gaziak gehienetan, baina argia topatzeko esperantza galdu barik. Ilunetan edo argitan, ez dute ezer ezkutatzeko.

enpresa-bilera ospakizunak urtebetetze jaunartze bataio

DURANGON ORDUKAKO TXOKO ALOKAIRUA 688 864 975 info@zuretxokoa.com

ZURE txokoa www.zuretxokoa.com

Kamerribakur 23 beheko, 5. eta, 148 201 Durango - BIZKAIA

clínica dental hortz klinika  
b. unamunzaga e. etxebarria

RPS: 145-13

ODONTOLOGIA OROKORRA ETA ESPEZIALITATEAK

Goizeko 08:00etatik gaueko 21:00etara ZABALIK

muruetatorre 2C blokea, beheko - 48200 Durango - Tel.: 946 819 951

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN  
KONTRAKO NAZIOARTEKO EGUNA

# AZA RO AK 25

TRATU TXARREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEENTZAKO  
LAGUNTZA JURIDIKO ETA PSIKOLOGIKORAKO ZERBITZUA

946 200 492



Durangoko Merinaldearen  
Amankomunazgoa  
Mancomunidad  
de la Merindad de Durango





Iazko Beldur Barik topaketako momentu bat.



Beldur Barik lehiaketara aurkeztu den Abadiñoako taldearen sekuentzia bat.

## &gt; BELDUR BARIK

# Azaroaren 30ean Beldur Barik topaketetarako deia

Durungaldeko gazteek egindako bederatzi film labur aurkeztu dira Beldur Barik lehiaketara

## &gt; ITSASO ESTEBAN

Beldurra eduki daiteke iluntasunean ezezagunak agertzeari, bikotea haserrearazteari, estereotipoetatik kanpo zer edo zer egiteari... Horrelako egoeren aurrean beldur bako jarrera aldarrikatzea da Beldur Barik ekimenaren helburua. Azaroaren 30ean ospatuko den jaialdia izango da ekimenaren egun gailurra. Basauriko Marienean izango da topaketa, 16:00etatik aurrera. Bertan, tailer, jai giro eta Beldur Barik film laburren lehiaketako sari banaketarekin une atsegina igaro ahalko da.

## Film laburrak

Arropa neurri batek eragin dezakeen obsesioa, gizoni eta emakumei lotzen zaizkien estereotipoak... Gai ugari landu dituzte gazteek film labur lehiaketan. Guztira, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako 151 lan aurkeztu dira, Durungaldekoak bedera-

Basauriko Marienean izango da Beldur Barik topaketa, arratsaldeko 16:00etatik aurrera

Film labur guztiak 'beldurbarik.org' helbidean ikus daitezke, eta bertan lan onenari botoa eman

tzi. Berrizko eskolako ikasleek, adibidez, neska eta mutilek berdintasunaren alde lan egiteko premiari buruzko lana aurkeztu dute. Abadiñoako taldeak egindako lanean neskek izan ohi dituzten mamu eta beldurrak ageri dira, eta irtenbidea aurre egitean dagoela adierazi dute. Durangoko Zeozer elkarteak lan bat baino gehiago aurkeztu du,

## ELORRIOKO UDALA Azaroak 25

**Azaroaren 25ean** -Elorrioko Udalak herritarrei dei egiten die etxeko leihoetan **puntu morea** ipintzera.

19:00etan Herriko Plazan egingo den **kontzentrazioa** joateko deialdia luzatzen du Elorrioko Udalak.

**Azaroaren 30ean** -Basauriko Beldur Barik topaketetan parte hartzera animatzen ditu herriko gazteak.

## BELDUR BARIK TOPAKETA 2013 - BASAURI

### Azaroaren 30ean, larunbata, Marienean

Kareaga Goikoa kalea, 54, Basauri

- 16:00 - 16:30 Autobusien helduera Marieneara.
- 16:30 - 17:00 Kapritxosas-ekin Marienea bisita ezazu.
- 17:00 - 19:30 Tailerrak (*sexualitatea, autodefentsa feminista, mutilentzako feminismoa eta klown*).
- 19:30 - 20:00 Kalejira.
- 20:00 - 20:30 Lunch.
- 20:30 - 22:15 Lanen proiektzioa. Sari banaketa. Oihulari Klown-en Clownklusioak.
- 22:15 Autobusen irteera Ibaiganetik.



Doako autobusak Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabatik. Izena emateko: [jarrera@beldurbarik.org](mailto:jarrera@beldurbarik.org)

**ANIMATU ETA PARTE HARTU, ZABALDU ZURE BELDUR BARIK JARRERA!**

[www.beldurbarik.org](http://www.beldurbarik.org)




ANTOLATZALEAK



BULTZATZALEAK



LAGUNTZALEAK



Elorrioko udala



eta beldurrei eta genero estereotipoei egin diote erreferentzia.

Lan guztiak [www.beldurbarik.org](http://www.beldurbarik.org) helbidean ikus daitezke, eta azaroaren 27tik aurrera film labur onenari botoa emateko aukera egongo da.

Iaz, Durangaldeko beste zazpi lan aurkeztu ziren lehiaketara, eta Elorrioko Txoko Feministak egindako film laburrak epaimahaiaren aipamen berezia lortu zuen. Eguneroko hainbat egoeren aurrean sentitzen diren beldurrak izan zituen berba lan hark.

#### Azaroaren 30eko topaketa

Basauriko topaketa arratsaldeko 16:30ean hasiko da, datorren asteko domekan. Lehenengo eta behin, Marienea emakumeen etxean bisita bat egingo dute Las Kapritxosas emakume pailazo taldearekin.

Arratsaldeko lehen zatian, lau tailerren artean aukera egin ahalko dute parte hartzaileek: Sexualitate tailerra, autodefentsa feminista, mutilentzako feminismoa eta clown tailerra.

Sexualitate tailerlean, emakumeen sexualitateari buruz dauden mezuei buruz berba egingo dute. *Herentzia sexuala* izenburupean, hainbat gai landuko dituzte. Tartean, asetze erotikoa, emakumeen hipersexualizazioa, mito eta debekuak,

sexualitatearen arriskuak eta jazarpenak... Saioa Hernandez Castro izango da tailerren dinamizatzailea.

#### Portaera sexistak aztertzen

Autodefentsa feminista tailerlean, eguneroko mikro-matxismoak aztertuko dituzte hasteko, eta horiei egokitutako erantzuk

Sexualitate tailerra, autodefentsa, mutilentzako feminismo tailerra eta clown tailerra egongo dira

Sexualitate tailerlean, emakumeen sexualitateari buruz dauden mezuek aztertuko dituzte

nak landu eta sortuko dituzte. Portaera sexista horiek zelan transmititzen diren ikusiko dute. Eraso fisikoen aurrean babesteko teknika batzuk ere ikusiko dituzte tailerlean. Isa Bernal psikologo feministagaz jardungo dute tailerlean. Bera unibertsitateko irakaslea da, tratu txarretan eta indarkeria sexistan aditua.

Mutilentzako feminismo tailerra ere egongo da Basauriko topaketa. Era partehartzailean eta euren esperientzietatik abiatuta, feminismoari mutilek egin dezaketen ekarpenari buruz ibiliko dira berbetan Jokin Aspiazu soziologoagaz.

Clown tailerra ere egongo da. Umorea eta jabekuntza landuko dute tailer horretan. Emozioak kudeatzeko modu osasuntsuago bat edukitzeko tresnak jorratuko dituzte Oihulari Klowneko Virginia Imazen eskutik.

#### Umorea eta jai giroa

Tailerren ostean, kalejira eta luntxa edukiko dituzte Basauriko Marienean. 20:30ean hasita, film labur lehiaketako lanak proiektatuko dituzte, eta, ondoren, sari banaketa egingo dute. Oihulari Klown taldeak *Clownlusioak* deitutako emanaldia egingo du.

Beldur Barik Topaketa izena eman nahi duenak [jarrera@beldurbarik.org](mailto:jarrera@beldurbarik.org) helbidera idatzi dezake.

20:30ean film labur lehiaketako lanak proiektatuko dituzte, eta sari banaketa egingo dute

#### > ELORRIO

## Astelehenean, 19:00etan deitu dute elkarretaratzea

Udalak puntu moreak banatuko dizkie herritarrei

#### > AMAIA UGALDE

Indarkeria sexistaren kontrako sinboloa bihurtu da azken urteotan puntu morea. Elorrioko Udalak etxerik etxe banatuko ditu aurrean ere puntu moreak dituzten kartelak, 3.200 guztira,

Elorrioko Txoko Feministak bere deialdia egin du plazako kontzentrazioan parte hartzeko

eta herritarrei etxeetako leihotetan, edo saltoki eta tabernen ateetan eta erakusleihotetan ipintzeko deia egin die.

Azaroaren 25ean bertan, elkarretaratzea deitu dute Herriko plazan, 19:00etarako. Urtero hainbat herritar batzen da bertan, baita herriko lau emakume elkarteetako kideak ere. Astelehenerako, Elorrioko Txoko Feministak bere deialdia egin du herritarrak kontzentrazioan batzeko.



#### > ZALDIBAR

## Domekan, bizikleta martxara joateko deia zabaldu dute

Azaroaren 24an, 11:00etan aterako dira udaletxe paretik; bizikletaz 14 kilometro eta erdi egingo dute

#### > ITSASO ESTEBAN

Helmuga emakume elkarteak eta Udalak antolatu dute datorren domeka goizeko bizikleta martxa. Udaletxe aurrean, 11:00etan abiatuko dute martxa, eta 14 kilometro eta erdiko ibilbidea osatuko dute parte hartzen dutenek. Antolatzaileek ohartarazi dute ibilbidea ez dela lau-laua izango, aldapa txiki batzuk igo beharko dituztela txirrindulariek bidean. *Emakume zein gizon, herritar guztiak emakumeenganako indarkeriaren aurka!* lemapean burutuko dute martxa. Ibilbide osoa egitera animatzen ez direnentzat, bereziki umeentzat, herrian zehar ibilalditxo antolatu dute: 12:30ean tren geltoki zaharretik aterako dira, eta ibilbidea amaitzean, mokadutxo banatuko dute gerturatutakoen artean.

Herriko Helmuga elkarteak deitu du, bestalde, azaroaren 25eko Emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako egu-

neko kontzentrazioa. Agirre Lehendakariaren parkeko elkarretaratze horren ostean, indarkeriaren kontrako adierazpena irakurriko dute.

Astelehenean, *Indarkeria matxisten aurrean Feministak martxan* dokumentalaren emanaldiagaz emango dute azaroaren 25eko egitaraua amaitutzat. Liburutegi zaharlean izango da Mugarik Gabe GKEak egindako dokumentalaren emanaldia. El Salvador, Guatemala eta Euskal Herriko zazpi emakume feministen kontakizuna du ardatz dokumentalak: emakumeek indarkeria matxista ugariri egin behar izaten diote aurre, eta horri buruzko gogoeta egiten dute protagonistek. Indarkeria salatu eta horri aurre egiteko moduez dihardute.

*Maitasun erromantikoa desmitifikatuz* berbaldi-taileragaz abiatu zuten Zaldibarren, atzo, azaroaren 25aren harira antolatutako egitaraua.

**AZAROAK 25 EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO EGUNA**

Azaroak 21, eguena  
18:30 // liburutegi zaharlean  
HITZALDI-TAILERRA "Maitasun erromantikoa desmitifikatuz" (EUSKARAZ)

Azaroak 24, domeka  
11:00 // udaletxe aurrean  
BIZIKLETA MARTXA  
"Emakume zein Gizon, herritar denok Emakumeenganako Indarkeriaren aurka!"  
Distantzia 14,40km (ez da lau, aldapa txiki batzuk dauzka)  
12:30 // tren geltoki zaharlean Bizikletaz Zaldibarra bira, amaieran mokadutxo bat.

Azaroak 25, astelehena  
17:30 // Lehendakari Agirre parkea  
Kontzentrazioa eta Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako adierazpenen irakurketa. Ondoren, liburutegi zaharlean, "Martxan: indarkeria matxisten aurrean Feministak martxan" DOKUMENTALAREN EMANALDIA. (GAZTELANIAZ)

Hautzaindegi zerbitzua egongo da alde zurretik eskatzen dutenentzat. Udaletxean bertan, telefonoz 946 827 016 edo posta elektronikoz [berdintasuna@zaldibar.org](mailto:berdintasuna@zaldibar.org)

ZALDIBAR

## &gt; ZORNOTZA

# Mercedes Pintoren ondarea gogoratuko dute 'Ellas' dokumentalaren bidez

Hainbat zinema jaialditan saritu duten Mercedes Pintoren gaineko lana emango dute martitzenean

## &gt; JOSEBA DERTEANO

Udaleko Gizarte Ekintzako Berritasun Sailak eta Ametx erakundeak heldu zein gazteei begirako egitarau zabala antolatu dute Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Egunaren harira. Datorren martitzenean, esaterako, Mercedes Pinto idazle, ekintzaile politikoko eta kazetariaren gaineko *Ellas* dokumentala eskainiko dute, 20:00etan, Zelaieta zentroan.

Mercedes Pinto (1883-1976, Tenerife) ezaguna da, besteak beste, feminismoaren alde egindako lanagatik. Gainera, horren ondorioz, Uruguaira desterratu zuten. 1923an *El divorcio como medida higiénica* izeneko hitzaldia eskaini zuen Madrilan, eta Miguel Primo de Rivera diktadoreak erbesteratu egin zuen. Uruguain bere ideak zabaltzen

jarraitu zuen, eta, besteak beste, *Vida Canaria* aldizkaria sortu zuen. *Ellas* dokumental bere bizitza islatzen du. Ikasle, kazetari eta idazle bat (Paola Bontempi, Silvia Munt eta Marta Aura aktoreekin) Pintoren bizitza arakatzeko hasiko dira, eta, euren bitartez, bere bizitzako unerik esanguratsuenak jorratuko dituzte. Dokumental honek, besteak beste, 2010ean Malagako zinema jaialdian zilarrezko Biznaga saria jaso zuen. Zelaieta zentroko emanaldiaren ostean, mokadutxo baten bueltan batu, eta solasaldirako gonbidapena luzatuko diete bertaraten direnei.

**Indarkeria salatzeko mezuak** Bestalde, gazteak protagonista dituen ekimenak ere izango dira azaroaren 25aren harira. Astelehenean Gaztetxokoko

Indarkeriaren aurka gazteek landutako mezu eta argazkiekin erakusketa antolatuko dute

gazteek emakumeen kontrako indarkeria salatzeko mezuekin argazkiak aterako dituzte modu bitxi batean. Komikietako eredu jarraituz, mezuak bunbuilo barruetan txertatuko dituzte, eta, ondoren, argazkiak aterako dituzte nork bere bunbuiloan ipinitako mezuekin. Ondoren, hilaren 26tik 30era, erakusketa antolatuko dute argazki horiekin, Zelaieta zentroko ludoteketan. Ludotekako beirate zabal batek kalera ematen du, eta, hantxe eskegiko dituzte argazkiak, kaletik dabilen edonork ikusteko moduan. Horrez gai-

nera, indarkeriaren aurkako paparrek orratz tailerra ere antolatu dute astelehenerako. Gazteen ekimenez, Beldur Barik kanpainara aurkeztu duten bideo bat ere landu dute urrian.

**Kontzentrazioa**

Azaroaren 25aren harira beste ekitaldi bi ere egongo dira Zornotzan. Bata, astelehenean, 13:00etan, Herriko plazan egingo duten kontzentrazio eta adierazpen instituzionala izango da. Bestea, ostera, zapatuan antolatuko duten autodefentsa ikastaroa.



Zelaieta zentroan eskainiko duten 'Ellas' dokumentaleko fotograma bat.

## &gt; BERRIZ

# Pintura, literatura eta musika morez jantzita

Paco Damas en musikak bat egingo du poesiarekin

## &gt; J.D.

Askotariko adierazpideak erabilita, azaroaren 25ean Berrizek bat egingo du Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Egunagaz. Goizean, DBHko hainbat ikasle ikastetxe pareko plazara aterako dira, aurretik, klasean zirriborrututako irudiak margotu eta amaitzera. Azaroaren 25aren harira egindako aldarrikapen irudikatua izango dira. Ondoren, margolanak Haur eta Lehen Hezkuntzako gaztetxoei erakutsiko dizkiete, Beldur Barik kanpainako bideoekin batera. Bideoak Kultur Etxean ere ikusgai egongo dira, 19:30etik aurrera.

Udaleko Gizarte Arloko hezitzaile Beatriz Avilak, Nunila Lopez Salameroren *Los colores* ipuina oinarri hartuta, more kolorearen sorrera azaltzen duen ipuina osatu du, euskaraz. Urdin eta arrosa koloreek talka egin, eta morea sortu zuteneko istorioa kontatzen duen ipuina ikasleen artean banatuko dute.

Ekimenekin amaitzeko, musika eta poesiak bat egingo dute Kultur Etxean. Paco Damas musikari jaendarraren doinuekin tartekatuta, Maria Zambrano, Rosalia de Castro, Clara Campoamor eta abarren omenezko irakurketa poetikoak egingo dituzte, 19:40tik aurrera.



Gazteei zuzendutako hainbat ekimen prestatu dituzte.

## AZAROAK 25

### Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna

Puntu morea, herriko hurrengo guné hauetan eskuragai  
UDALETXEAN, KULTUR ETXEAN, IKASTETXEETAN

**Har ezazu puntu more bat eta etxeko leihoan jarri, lagundu Berriz puntu morez betetzen!**

---

**9:30 ESKOLAN**

DBHko ikasleek, koadroak margotuko dituzte kalean  
DBHko ikasleek egindako lanak erakutsiko dizkiete Lehen Hezkuntzako Lehen Hezkuntzako ikasleek koloreen ipuina jasoko dute

---

**19:00 URTIAGA PLAZAN**

Kontzentrazioa "Emakumeenganako indarkeriari ez!"  
18:45ean BBKren aurrean elkartuko gara ibilalditxo giroa egiteko

---

**19:30 KULTUR ETXEAN**


"Beldur Barik" kanpainako bideo emanaldia


---

**19:40 KULTUR ETXEAN PACO DAMAS**

"Haragi eta bertsozko emakumea" Emakumei eskainitako kantak abestuko ditu Paco Damasek.

Kantekin tartekatuz, Clara Campoamor, Rosalia de Castro, Zenobia Camprubi, María T. León, María Zambranoren eta abarren omenezko irakurketa poetikoak egingo dituzte berriztarrek. Entzule guztiei zuzendutako kontzertu interesgarri eta berritzailea.



> **ABADIÑO**

laz, Traña-Matienan antolatutako kontzentrazioa.

## Emakume elkarteek eta udalak kontzentrazioa deitu dute

Anboto Azpiko Damak eta Batugara elkarteek batzeko deia luzatu dute

> **JONE GUENETXEA**

Azaroaren 25a dela eta, Anboto Azpiko Damak eta Batugara emakume elkarteek udalagaz batera kontzentrazioa antolatu dute astelehenerako. 19:00etan, Traña-Matienako Trañabarren kalean jarri dute hitzordua. Elkarretaratzearen ondoren, Batugara elkarteko kideek batukada erakustaldia eskainiko dutela azaldu dute antolatzaileek.

**Sexu aholkularitza**

Urte osoan udalak martxan jarri duen sexu aholkularitza bulegoa zabalik egongo da azaroaren 26an Pino plazako udal lokallean, 17:30etik 19:30era. Gazteei zuzendutako zerbitzua Laia-Nahia taldeko Oihane Ugarteburuk eta Eider Goiburuk eskaintzen dute. Taldeak lau urte daramatza ikasleekin sexuari eta genoari buruzko gaiak lantzen. Gazteei

ez ezik, guraso eta irakasleekin gai horiek lantzea dute helburu. Udalak dioenez, "helburua da neska-mutilek sentitzea badutela leku bat sexualitateaz dituzten zalantzak argitu eta galderak egiteko. Mito faltsuak alboratzen eta euren buruengan konfiantza hartzen lagunduko die horrek". Hileko bigarren astelehenean Matienan egoten dira, eta laugarrenean Txanportan.

## Indarkeria matxistaren inguruan hausnartuko dute Zaida Fernandezekin

Kafe-tertulian batuko dira gaur, 17:00etan, Errotan

> **J.G.**

Zaida Fernandez soziologoak berdintasunarekin lotutako gaien inguruko kafe-tertuliak dinamizatzen dihardu Abadiñon. Gaur, 17:00etan abiatuko duten solasaldian, ikuspuntu feministatik indarkeria matxistaren inguruan jardungo dutela aurreratu du Fernandezek. Dinamizatzaileak hainbat kontzeptu azalduko ditu: "Etxeko indarkeria, genero indarkeria, indarkeria matxista eta indarkeria sexista

kontzeptuek ez dute gauza bera esan nahi, beraz, bakoitzak zer esan nahi duen azalduko dut". Hainbat indarkeria motaren inguruan hausnartuko dute, gainera. "Indarkeria psikologikoa edo ekonomikoa ere badaude", dio Fernandezek.

**Gazteen ikuspuntua**

Gazteei begira, indarkeria zelan detektatu eta zelan aurre egin garrantzitsua dela azpimarratu du soziologoak. Beldur Barik programan eta ildo horretako ekimenetan gazteek parte hartzeari garrantzitsua deritzo. "Berdintasunezko harremanen alde eta tratu onen alde egin behar dugu".

**Tertulia "intimoak"**

Orain arteko kafe-tertuliek harrera ona izan dutela dio Zaida Fernandezek. Hainbat adinetako emakumeek parte hartu dutela azaldu du. Gune intimo bat sortzea dute helburu, dinamizatzaileak gaiak planteatu, eta emakumeek berba egin dezaten.

Ikuspuntu feministatik indarkeria matxistaren inguruan jardungo dutela aurreratu du Fernandezek

Gazteen artean indarkeria zelan detektatu eta zelan aurre egin garrantzitsua dela azpimarratu du

### EGITARAUA

**AZAROAK 16**

Erakusketa gidatua  
**GUERRILLA GIRLS:**  
1985 - 2013  
12:00 Bilbao  
(La Alhóndiga)

**AZAROAK 22**

Kafe-tertulia  
**LA VIOLENCIA CONTRA  
LAS MUJERES A DEBATE**  
17:00 Errota kultur etxea

**AZAROAK 23**

Antzerkia  
**COMO COMO POCO  
COCO, ME DESCOCO  
POCO**  
Teatro Que Madura  
20:00 Errota kultur etxea  
Sarrera: 2€

**AZAROAK 25**

Kontzentrazioa  
**EMAKUMEEN AURKAKO  
INDARKERIAREN  
KONTRAKO EGUNA**  
19:00 Trañabarren kalea

**AZAROAK 26**

**ABADIÑOSEX:**  
**GAZTEENTZAKO  
SEXU AHOALKULARITZA**  
17:30 - 19:30 Pino Plaza  
(udal lokalak)

**AZAROAK 30**

**BELDUR BARIK  
TOPAKETA**  
Autobusa  
[www.beldurbarik.org](http://www.beldurbarik.org)  
webgunean erreserbatu  
16:00 Marienea (Basauri)



**EMAKUMEEN AURKAKO  
INDARKERIARI EZ**

ABADIÑO - AZAROAK 25



**ABADIÑO  
UDALA**

&gt; DURANGO

# “Mugikorra kontrolatzea indarkeria sinbolikoa da”

Sendón de Leónek dio indarkeria sinbolikoa errealaren aurrekari dela



&gt; MARKEL ONAINDIA

Azaroaren 25aren harira, hilaren 28an berbaldua eskainiko du Kurutzasantu Museoan Victoria Sendón de León filosofo eta feminista ospetsuak. Emakumeen kontrako indarkeria sinbolikoaz eta errealaz jardungo du, 18:30ean.

**Zer esan gura duzu indarkeria sinbolikoa kontzeptuagaz?**

Indarkeria sinbolikoa kontuan hartzen ez dena da. Horregatik jarraitzen du existitzen indarkeria errealak; sinbolikoa indarkeria errealaren aurrekaria da. Emakumeak txarto tratatzeko, prostituitzeko, erailtze-

ko edo feminizidioak egiteko, emakumeak gutxiesten dituen zerbait kulturala egon behar da aurretik. Eta objektu sexual hutsak direla pentsatzeko ere bai, bestela, gizonak ez lirakeke putetxeetara joango horrelako poztasunagaz. Horrela, jokaera horiek forma ez kontzientean

egindakoak dira. Adibide batzuek ulertzeko: milioika judu hiltzeko, lehenengo, jende hori miserablea zela konbentzitu behar izan zuten naziek. Hori guztia patriarkatuan eraikitako zerbait da. Aristotelesen sasoian emakumea izaki zikiratu bat zela uste zen, gero, gaizkiaren inkarnazioa zela, eta, orain, objektu sexual hutsa dela.

**Eta non topatu genezake indarkeria sinbolikoa hori?**

Indarkeria sinbolikoa, ez denez kontzientea, leku guztietan dago. Neska batek 38 neurria erabiltzeko derrigortasuna sentitzen badu, indarkeria sinbolikoa da. Emakumea edertasun eredu baten ordezkari izatera bultzatzen duen gizarte oso bat dago. Andre batek titiak aldatu gura baditu, eta meloi biren gisakoak ipintzea beharrezkoa badu, indarkeria sinbolikoa da. Zergatik? Gizonek gustuko ei duten edertasun kanona delako. Mutil gazte batek bere bikoteari mugikorra kontrolatzea, janzkera kontrolatzea, indarkeria sinbolikoa da. Gainera, emakume askok uste dute hori maitasun froga bat dela. Hori indarkeria sinbolikoa da, eta hortik erreale- ra pauso bat baino ez dago.

**Bikote gazteen artean kontrola handitzen dabilela uste duzu?**

Kontrol horiek izugarri handitzen dabilta. Ezkonduta daudela, eta 1940ko hamarkadako bikote supertradizional bat direla dirudi.

**Zerbait txarto doa, orduan...**

Bai, noski. Emakumearen irudia, hedabideetan, batez ere, menperatuarena da, objektu sexualarena. Hori da txarto egiten dena. Bizitzen edo ikusten ditugun gauzak, moda, komentarioak... Inkontzientea bustitzen dabilzkigu. Ondorioz, emakume izatearen irudi bat proiektatzen dugu. Esaneko pertsonalitate adeitsuak sortzen dira neskenan, eta pertsonalitate menderatzaileak mutilengan. Horiek guztiak dominazio sinboliko baten ondorio dira. Zergatik ez du

*“Esaneko pertsonalitate adeitsuak sortzen dira neskenan”*

funtzionatzen administrazioak, legeak parekideak badira? Ez du funtzionatzen, indarkeria erreale- ri bakarrik ipintzen zaiolako arre- ta. Hor dago akatsa, zuztarrean. Horri heltzen ez zaion bitartean, indarkeria erreala bizirik egongo da.

## Pochutako egoera aztergai berbaldian

Bateginezek dinamika berria aurkeztuko du

&gt; M.O.

Bateginez eta Andereak elkar- teek Pochutako (Guatemala) emakumeen eskubideen in- guruko berbaldia antolatu du- te hilaren 27rako. Durangoko Bateginez Gobernu Kanpoko Erakundeak elkartasun proiektuak garatzen ditu Pochutan, eta emakumeen egoera hobetzeko ere lan egin gura dute. *Mujeres de Pochuta en Acción* mugimen- dua bultzatzea da euren helbu- ru.

Mugimendu hori emaku- meen eskubideen aldeko lana egiteko, eta indarkeria jasotzen duten andreei laguntza ema- teko sortuko dute. Dinamika horren berri emango dute 27an, 18:30ean, Pinondo Etxean.

Bestalde, Medicus Mundi Bizkaia sortutako erakusketa bat ere ipini dute Pinondon, eta 29ra arte egongo da. Ugalketa eta sexu eskubideek Guatemalan bizi duten egoera lantzen du.

## Hausnarketa landuko dute, indarkeria prebenitzeko

4. DBHko ikasleek tailer bereziak egingo dituzte, indarkeria sexista prebenitzeko asmoagaz

&gt; M.O.

Durangoko Udalaren eskutik, herriko 4. DBHko ikasleek tailer bereziak egingo dituzte dato- zen egunotan. Tailer horiekin gazteen artean hausnarketa bultzatzea dute helburu. Beraz, indarkeria sexista prebenitzea izango da asmoa. Berdinsarea ekimenak sustatutako Beldur Barik kanpainaren barruan

sartu dituzte tailerrak. Kan- painaren sustatzaileek gazteek indarkeria sexistaren kontrako jarrerak har ditzaten gura dute egitasmo honen bidez.

Horrez gainera, irakasleentzako ere berbaldi bat prestatu dute. Indarkeria eta kontrol sexista ekiditeko zelako baliabi- deak erabili ahal diren azalduko diete.

### EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN KONTRAKO NAZIOARTEKO EGUNA

**AZAROAREN 18tik 29ra**  
ERAKUSKETA

'Sexu eta ugalketa eskubideak Guatemalan'  
Medicus Mundi – Bateginez  
Tokia: Andragunea (Pinondo plaza 1)

**IGANDEA 24**

ANTZERKIA

'PALABRAS' Hika Antzerki Taldea  
Tokia: San Agustin Kultur Gunea  
Ordua: 19:00  
Sarrera: 10 € (7,5 € bazkideak)

**ASTELEHENA 25**

KONTZENTRAZIOA

Tokia: Udaletxeko Plaza  
Ordua: 13:00

MANIFESTAZIOA

Durangoko Udalak, Durangoko Plataforma Feministak antolatutako manifestazioan parte hartzera animatzen zaitu.

Tokia: Andra Mari  
Ordua: 20:15



**ASTEAZKENA 27**

HITZALDI-AURKEZPENA

Acompañamiento a la creación del grupo Mujeres de Pochuta en Acción' proiektuaren aurkezpena. Bateginez O.N.G – B.E.G eta Medicus Mundi  
Tokia: Pinondo Etxea (jazken pisuko 3.5 gelan)  
Ordua: 18:30

**OSTEGUNA 28**

HITZALDIA

'LA DAMA Y LA BRUJA (Violencia simbólica y real en el Patriarcado' Victoria Sendón de León, filosofoa eta idazlea

Tokia: Kurutzasantu Museoa. Kurutzaga Kalea, 38  
Ordua: 18:30

ANDEREAk Emakumeenganako biolentziaren aurkako elkar- teak antolatzen du

**LARUNBATA 30**

KONTZERTUA

ETEN Kontzertua Tratu Txarren kontra  
Tokia: Plateruena [www.plateruena.net](http://www.plateruena.net)  
Ordua: 22:00

EMAKUMEEN AURKAKO  
INDARKERIARI EZ


ANTOLATZALEAK



BULTZATZALEAK



LAGUNTZALEAK



# Kirola

&gt; ERRUGBIA

## Lau partidutan punturik batu ez duten Elorrio eta DRT derbian neurtuko dira

Bihar, Elorrio eta DRTren arteko derbia hartuko du Elorrioko San Roke zelaia; Euskal Ligari pattal ekin diote Durangaldeko talde biek, eta lau jardunaldi joan direnean, oraindik ez dute punturik batu



DRT taldeak eguaztenean egindako entrenamendu saioa. Kepa Aginako

&gt; JOSEBA DERTEANO

Elorrio Parra Taberna eta DRT B taldeek derbia jokatu dute bihar, 16:00etan, Elorrioko San Roke zelaian. Euskal Liga pattalen hasi duten taldeak izango dira aurrez aurre. Lau jardunaldi joan direnean, orain arteko partidu guztiak galdu dituzte. Eurak dira multzoko zortzi taldeen

artean oraindik punturik batu ez duten bakarrak. Gutxienez, bi taldeetako batek denboraldiko lehen puntuak batuko ditu derbian; talde biek ere lortu dezakete hori, entsegu kopuru jakin batetik gora lortzen badute.

DRT B taldeak gazte mailatik datozen jokalariek dezentzia dituzte eta lan kontuek eraginda, sa-

lta falta zaie, Ricardo Costa entrenatzailearen berbetan. Durango Rugby Taldeko bigarren taldea den heinean, "jokalaria formateza eta konfiantza hartu dezaten ahalegintzea" da aurtengo helburu nagusia.

Elorriori fitxa kopurua gutxitu egin zaio aurtan, eta lesioak eta lan kontuek eraginda, sa-

rritan ezin izan dute denek elkarrekin entrenatu. Dinamika falta hori partiduetan nabaritu egin dutela uste du Ibon Arregi jokalaria.

&gt; Derbi "deskafeinatua"

Ricardo Costa errugbi jokalarizana da, eta Ibon Arregik 15 urte daroaz jokatzen. Biak bat datoz Elorrio eta Durangoren arteko derbiek azken urteetan gaitza galdu dutela esatean. Oraingoak apur bat "deskafeinatua" direla dio Costak: "Orain urte batzuk aurreko aste osoan derbia izaten genuen berbera. Orain desberdina da. Derbiak beti dira bereziak, baina ez dute lehenengo intentsitatea". Arregik ere lehen "lehia handiagoa" sortzen zela uste du: "Orain, beheko mailetan, talde bietako jokalariek elkarrekin jokatzen dute, eta lagunak dira. Orain, behar bada, derbiak gehiago dira lagun arteko lehia". Aurtan, kadeteetan talde bateratua dute Elorriok eta DRTk.

&gt; ARETO FUTBOLA

## Elorrioko eta Mallabia, punta-puntako derbia

Talde biek bost jardunaldi daramatzate galdu barik



Elorriok jokatu dute derbia, asteburuan.

&gt; J.D.

Hirugarren Mailan une honetan sasoirik onenean dauden Elorrioko Buskantza eta Mallabia Tabiracolor derbian neurtuko dira zapatuan, 18:00etan, Elorrioko kiroldegian.

Talde biek antzeko ibilbidea daramate aurtan. Elorriok denboraldiko lehen partidu biak galdu zituen, eta Mallabiak lehen hirurak, baina harrezkero behetik gora egin dute, eta bost

partidu daramatzate porrotik jaso barik. Elorrioko taldeak azken bost partiduak irabazi, eta bat berdindu ditu. Horrela, Aurrera Vitoria liderrarengandik hiru puntuak kokatu dira. Mallabiak azkenengo bost partiduak irabazi egin ditu, eta Elorriokengandik puntu batera dago.

Hirugarren Mailan eskualdeak daukan hirugarren ordezkaria, Sasikoa, oso ondo dabil, eta bigarren dago sailkapenean.

&gt; TRINKETEA

## Tornosolo Kopako finalak jokoan, etzi

Gaurko finalerdietako lehen partiduan Mikel Gonzalez eta Rober Uriarte lehiatuko dira

Domeka eguerdian, Tornosolo Kopako finalak jokatu dituzte Abadiñoko trinketeen. Finaleko protagonistak gaur erabakiko dituzte, 19:00etan. Lehenengo partiduan Mikel Gonzalez berriar eta Rober Uriarte abadiñarra neurtuko dira. Uriartek joan zen asteburuan Laurent Lambert xehatu ondoren (40-12) lortu du finalerdietarako txartela. Abadiñarrak maila bikaina

erakutsi zuen partidu horretan, baina Ipar Euskal Herriko Lambertek erraztasunak eman zizkion, bere mailatik oso behera aritu zelako.

Gaurko bigarren finalerdian Ander Antxia abadiñarrak Paxkal Ezkurra izango du kontrario. Irabazten badu, domekako finalean, 12:00etan, Durangaldeko pilotari biren artean erabakiko dute txapela.



Mikel Gonzalez da gaurko finalerdietako protagonista bat. Kepa Aginako.

## AGENDA

&gt; FUTBOLA

### HIRUGARREN MAILA

**Kulturala - Pasaia**

· Zapatuan, 17:00etan, Tabiran.

### OHOREZKO MAILA

**Iurretako - Basconia B**

· Zapatuan, 17:00etan, Larrakozelaian.

### MAILA GORENA

**Abadiño - Urduliz**

· Zapatuan, 15:30ean, Astolan.

### LEHENENGO ERREGIONALA (emakumeak)

**Elorrio - Mungia**

· Zapatuan, 16:00etan, Eleizalden.

### HIRUGARREN ERREGIONALA

**Elorrio B - Arratia B**

· Zapatuan, 18:00etan, Eleizalden.

&gt; ARETO FUTBOLA

### HIRUGARREN MAILA

**Elorrioko Buskantza - Mallabia Tabiracolor**

· Zapatuan, 18:00etan, Elorrioko udal kiroldegian.

### MAILA GORENA

**Sapuberri - Muskiz**

· Domekan, 11:00etan, Landakon.

**Kurutziaga - Sasikoa B**

· Zapatuan, 19:30ean, Landakon.

### LEHENENGO ERREGIONALA

**Abadiñoko Gaztetxe - Mazusberri**

· Zapatuan, 17:00etan, Traña-Matienako kiroldegian.

### BIGARREN ERREGIONALA

**Mallabia B - Usansolo**

· Domekan, 17:00etan, Zaldibarko Solobarrian.

**Elorri Txiki - Egartsuak**

· Zapatuan, 15:00etan, Elorrioko udal kiroldegian.

**Gu Lagunak - Racing Tolosto**

· Zapatuan, 16:15ean, Landakon.

&gt; SASKIBALOIA

### LEHEN MAILA (emakumeak)

**Tabirako Baque - Banco Mediolanum**

· Zapatuan, 19:00etan, Landakon.

### LEHEN ERREGIONAL BEREZIA

**Tabirako Baque - Barrena Berri**

· Zapatuan, 17:00etan, Landakon.

&gt; ESKUBALOIA

### EMAKUMEEN LIGA

**Ibaizabal - IES Construcción**

· Zapatuan, 17:30ean, Landakon.

&gt; PILOTA

### TORNOSOLO KOPA (finalerdiak)

**- Mikel Gonzalez / Rober Uriarte****- Ander Antxia / Paxkal Ezkurra**

· Barikuan, 19:00etan, Abadiñoko Tornosolo trinketeen. Finala domekan, 12:00etan, jokatu dute.

## &gt; ZIKLO-KROSA

# Bizkaiko txapelak Berrizko proban erabakiko dituzte

Domekan, Berrizko Ziklo-kros Sari Nagusia lehiatuko dute Berrizburu inguruko zirkuituan; iazko moduan, Bizkaiko txapelak egongo dira jokoan



Aitor Hernandez iazko txapela berrizteko hautagai nagusietako bat da.

## &gt; JOSEBA DERTEANO

Berriz Bizikletari Elkarteak antolatuta, domekan 200 bat parte hartzaile (Euskal Herrikoak, Kantabriakoak...) hartuko ditu Berrizko Ziklo-kros Sari Nagusiak. Gaztetxoenetatik hasita, Master 60ra arteko ziklistak ariko dira lehiatzen Berrizburu inguruan atondutako zirkuituan.

Iazko moduan, aurten ere Bizkaiko Txapelketa egongo da jokoan mailaz maila, Berrizen. Iaz Aitor Hernandez ermuarrak lortu zuen garaipena gizonetan. Guztira, birritan nagusitu da Berrizen, eta, beste behin, bigarren geratzea lortu du. Aurten

ere etorriko da Berrizko probara eta Aketza Peña (San Andres saria irabazi du), Erlantz Uriarte eta Julen Zubero izango ditu, besteak beste, aurkari nagusiak. Berrizko txirrindulari bi ere irabazteko lehiatuko dira nor bere mailan: Aritz Hernandez 23 urtez azpikoan, eta Ander Etxezarraga Master 30ean.

Zirkuituari dagokionez, oro har, iazkoari eutsi diote, aldaketa txiki batzuk baditu ere. Basoko bidea laburtu, eta azpiegitura berriak dauden (pilotalekua, parkea...) inguruko tartea luzatuko dute. Horrela, zaleek luzaragoan ikusi ahal izango dute

txirrindularien jarduna. Oro har, zirkuitu azkarra da, alderdi teknikoak zein igoera gogor batzuk uztartzen dituen. Baldintza klimatologikoek txirrindularien lana gogortu dezakete.

## ORDUTEGIA

**10:00etan:** Kadeteak (neskak eta mutilak).

**11:00etan:** Juniorrak, eta emakumeen 23 urtez azpikoak eta elite mailakoak.

**12:00etan:** Master 30 / 40 / 50 eta 60.

**13:00etan:** Gizonak 23 urtez azpikoan eta elite mailan.

## &gt; MENDI ASTEA

## Ajuria eta Ormazabal etorriko dira Atxondora

Asuntzek antolatutako Mendi Astea, Mikel Ajuria eta Andoni Ormazabalek parte hartuko dute

Asuntze mendi taldeak antolatutako Mendi Astearen barruan, Mikel Ajuria eskalatzaileak eta Andoni Ormazabal mendigo-

zaleak bisitatuko dute Atxondo. Azaroaren 26an, 19:30ean, Aju-riak Yosemite, Patagonia eta Marokon egindako eskalada

saiokin osatutako *Eskalada buruan eta ibili munduan* izeneko ikus-entzunezkoa eskainiko dute udalbatzar aretoan. Azaroaren 28an, toki eta ordu berean, Ormazabalen *Gasherbrum II* dokumentala eskainiko dute. Bai Ajuria eta bai Ormazabal Apatan izango dira bertaraten direnen galderei erantzuten. Bestalde, Untzillatxera irteera ere antolatu dute biharko, 09:00etan, Apatako plazatik.

## &gt; JUDO

## Zazpi domina lepora urteko lehen hitzorduan

Durangoko Judo Taldeko kimu mailako gaztetxoek sasoi betean hasi dute aurtengo denboraldia. Joan zen asteburuko lehenengo proban zazpi domina (urrezko hiru eta zilarrezko lau) eskuratu zituzten Leire Bazan, Deniba Konare, Josu Aiertzaguen, Ander Iturbe, Iñigo Urrutia, Aimar Aiertzaguen eta Oinatz Garciaren artean. Gainera, Leire Bazan eta Deniba Konarek proba mixtoetan irabazi zituzten urrezko dominak.

## &gt; ZIKLO-KROSA

## Jon Munitxa izan zen onena Zornotzan

Jon Munitxak, Durangoko Beste Alde Orue Eskola taldeko txirrindulariak, irabazi zuen joan zen domekan, Zornotzan, lehiatu zen ziklo-kros proba. Hasieran alde egin, eta bakarrik egin zuen lasterketako zatirik luzeena. Minutu batetik gorako alde atera zion bigarren helmugaratu zen Ander Monterori (Mendizmendi). Xuban Errazkinek osatu zuen podiuma (Buruntzapipi).

## &gt; HERRI KROSA

## David Garciak iazko garaipena berri du Bilbon

David Garcia durangarrak XXVI. Bilboko Herri Krosa irabazi zuen joan zen asteburuan (31.38ko denboragaz). Iaz ere bera izan zen irabazlea. Lasterketa erdian aurrera egin, eta ihes eginda helmugaratu zen. Bere atzetik, 16 segundora, Unai Uriarte sartu zen bigarren tokian, eta Jon Amutio hirugarrenen: 32.04. Emakumeetan Maitte Arraiza nagusitu zen. Guztira 7.500 lagunek parte hartu zuten lasterketan.

## ADITUAREN TXOKOA



Unai Zamalloa

Saskibaloia

## Saskibaloia osasuna gurean

Badira urte bi, gutxi gorabehera, honi buruz idatzi nuela, eta, orain, eskola kiroleko denboraldia hasi berria den honetan, berriro ere gai honi buruz lerro batzuk idaztea aproposa dela iruditzen zait.

Durangalde osoan gero eta talde gehiago daude. Durangon, Abadiñon, Elorrion, Zaldibarren, Berrizen... gero eta talde gehiago sortzen ari dira apurka. Baina nesken taldeak baino ez dira sortzen. Talderen bat neskek eta mutilak batera osatzen duten arren, gehiengo nagusia nesken taldeek osatzen dute. Oker ez banabil, mutilen taldeak Durangon bakarrik daude: Kurutzian bat eta Jesuitetan bost. Hori ere gero eta zailtasun handiagoarekin dabil. Gero eta nesken talde gehiago sortzea albiste ezin hobea da, baina mutilen gauza bera ez gertatzea da denon artean landu beharrekoa.

Egoera horrek, saskibaloia eskaintza gehiago zabaltzea eta hobetzea dakarkie klub guztiei. Egia esan, hori guztia etorkizun hurbil batera begira egin beharreko lana da. Mutilen artean, gero eta gehiago, gainera, talde kirol bakarra dagoela ematen du: futbola. Beraz, gure saskibaloiak inguruan, eta, batez ere, gure herrian izan duen garrantzia berreskuratu behar dugu. Jarrantu dezagun gure kirolagaz gozaten eta bere alde lanean. Joan gaitezen aurten ere Los Angeles Lakers edota Michael Jordan besteak diren gure jokalariek animatzera. Saskibaloia gozatu!

BERRIZKO  
**ZIKLOKROSS**  
SARI NAGUSIA  
BERRIZBURUN 2013 . 11 . 24  
BIZKAIKO TXAPELKETA

WWW.BERRIZBIZIKLETAEKARTEA.COM

10:00 Kadeteak neskek eta mutilak | 11:00 Junior mutilak: Junior, Sub-23 eta Elite neskek. | 12:00 Master 30/40/50/60. | 13:00 Sub-23 eta Elite mutilak.

**Gorka Gorostiza**

Arrazolako Erlaunpe elkarte (Atxondo)



## Eusko Label errezetak:

- Babarrunak
- Bildotsa labean, piperminekin lagunduta

### OSAGIAK:

- Eusko Label babarrunak
- Eusko Label bildotsa
- Eusko Label pipermina
- Saiheskia
- Txorizoa
- Kipula
- Gatza
- Olioa



**1** Eusko Label babarrun beltzak eta Eusko Label bildotsa dira hilabete honetako errezetako osagai nagusiak. Babarrunak aurreko egunean beratzen utzi behar ditugu, errazago egin daitezten. Bildotsa zatika beharrea, osorik sartuko dugu labean, baina ebakita, hobeto egin dadin.

**2** Kazola handi batean kipula eta piper berdea egiten utziko ditugu. Ondoren, babarrunak gehituko dizkiogu. Osagai guztiak batuta daudenean, uragaz estali eta egosten utziko ditugu. Saiheskia eta txorizoa beste kazola batean egosiko ditugu, koipea bota dezaten.



**3** Kazola batean bildotsa eta erdibitutako kipulak ipiniko ditugu. Kazolari ura gehituko diogu, haragia lehortu ez dadin. Laban sartu, eta ordubetez egiten utziko dugu. Ordubete ingurura, bildotsari buelta emango diogu, eta berriro sartuko dugu labean. Azkenengo hamar minutuetan bildotsari olio gehituko diogu, apurka distira eman diezaion.

**4** Babarrunak, saiheski eta txorizo muturragaz, eta bildotsa labean erreta. Horra hilabete honetako proposamena. Plater bi horiek bere denbora behar dute, eta presarik barik egin behar dira. Pazientzian dago sekretua. Plater bi horiei laguntzeko, Eusko Label piperminak apropos- aproposak dira.

Errezetaren bideoa ikusgai [www.anboto.org](http://www.anboto.org) webgunean



Goi-mailako elikagaiak



Eusko Label produktuekin osatutako otzara irabazi gura baduzu, bidali mezua zure izen eta telefono zenbakiarekin [zozketa@anboto.org](mailto:zozketa@anboto.org) helbide elektronikora. Asteburuan jasotzen ditugun mezuen artean zozketatuko dugu.

&gt; ZABOR BILKETA

# Edukiontzi urdinean papera eta kartoia bakarrik

Amankomunazgoak kanpaina berria hasi du, kontainer urdina ez delako ondo erabiltzen

## > MARKEL ONAINDIA

Durangeldeko Amankomunazgoak sentsibilizazio kanpaina berria kaleratu du zaborrak batzeko sistemaren inguruan. Oskar Zarrabeitia Amankomunazgoako presidentea eman du ekimenaren berri. Azaldu duenez, edukiontziak ez dira ondo erabiltzen, eta horrek eragina dauka sisteman, eta, ondorioz, birziklapenean. Kontainer urdinaren erabilpen egokiak arduratzen du, batez ere. Horregatik, edukiontzi horrek bereganatuko du kanpainaren protagonismo handiena.

Zarrabeitiak adierazi du arazo bat detektatu dutela. Kontainer urdinetan papera eta kartoia ez diren beste hainbat gauza sartzen ditu jendeak: plastikoak, tetrabrikak, hondakin begetalak... Jarrera hori aldatzea dute helburu kanpaina honeguz: "Arazoa detektatu dugu, eta kasuak non gertatzen diren hobeto ikusi gura dugu". Erabilaren jarraipena egingo dutela azaldu du, eta horren arabera neurri berriak hartzea ere ez dute baztertzen.

## Pegatinak

Arazoaren soluzioa ez dago Amankomunazgoaren esku, herritarren esku baizik. Baina, ahal den neurrian, gaiagaz sentsibilizatu gura dituzte herritarrak. Informazioa eskainiko

dute zenbait bidetatik: udalerrietan bandoak zabalduko dituzte, eta kontainer urdinetan pegatinak ipiniko dituzte. Pegatina horiek, kontainerretan zer bota ahal den eta zer ez erakutsiko dute.

Amankomunazgoak, papera eta kartoia batu, eta, birziklapenaren ondorioz, lehengai bihurtzeko ardura dauka eskualdean. Esate baterako, %100 birziklatutako kartoizko kaxak egiten dira modu horretan. Kamioiak kontainerretako papera eta kartoia batu, eta Amorebieta - Etxanoko birziklapen fabrika batera eroaten ditu.

Pegatina baztuek kontainerretan zer bota ahal den eta zer ez erakutsiko dute

Zarrabeitia: "Txarto erabiltzeak, birziklatze prozesua garestitu egiten du"

## Kostua handitzen da

Fabriketan sortzen da arazoa. Ikusten dute paperaz eta kartoiaz gainera, beste hondakin



Kontainer urdinetan papera eta kartoia bakarrik bota behar dela abisu eman du Amankomunazgoak.

batzuk ere agertzen direla, eta, horregatik, banaketa lana egin behar izaten dute, jasotakoa birziklatu ahal izateko. Zarrabeitiak ohartarazi du Amankomunazgoari kostu ekonomikoa handitzen zaiola. "Txarto erabiltzeak, birziklatze prozesua garestitu egiten du", esan du. Izan ere, sailkatzeko lan hori berezko zerbitzuaren kostuari gehitzen zaio.

Gainera, kostua handitzearen arazoa ez da hor amaitzen, Zarrabeitiak azaldu duenez: "Papera eta kartoia ez den hori nonbaitera eroan behar da, eta

horrek ere kostua handitu egiten du. Hori guztia gehitzen badugu, kalte egiten digu".

## Beste kontainerrak

Bestalde, kanpaina berean, beste pegatina bat ezarri dute errefusa batzeko edukiontzi

Erabilera desegokia orokorra dela uste dute, eta horretan ere eragin gura dute

berdeetan. Izan ere, erabilera desegokia orokorra dela uste dute, eta horretan ere eragin gura du Amankomunazgoa. Horregatik, pegatinagaz edukiontzi bakoitzean zer bota ahal den eta zer ez adieraziko dute.

Txarto egindakoen artean, esate baterako, errefusaren kontainerrean plastikoak eta altzariak agertu izan dira. Ontzi arinen edukiontzian jostailuak edo gomazko eskularruak bota izan dituzte; beirarenean ispi-luak eta edalontziak; eta papera eta kartoiarenean paperezko eskuzapiak.

## Tamaina handiko hondakinak uzteko irizpideak betetzea eskatu dute

Koltxoiak, altzariak, etxetresnak eta bestelako objektuak utzi ahal dira



Hainbatek irizpidez kanpo uzten dituzte tamaina handiko hondakinak.

Tamaina handiko hondakinak uzteko irizpideak gogoratu gura izan ditu Amankomunazgoak. Datak eta lekuak gainontzeko hondakinekin baino zehatzagoak dira kasu honetan, hondakinaren tamaina eta ezaugarrien ondorioz. Zenbaitzuek ez omen dituzte irizpideak betetzen. Horregatik, irizpide horiek errespetatzea eskatu dute zerbitzuaren arduradunek.

Koltxoiak, altzariak, etxetresna elektrikoak eta etxe-ko bestelako objektuak utzi

ahal dira, kamioiak batu ditzan. Baina, egun eta ordutegi zahatza errespetatu behar da. Eguaztenetan pasatzen da kamioia; Iurretan astero, eta beste herrietan eguazten birrik behin. Hori eta zaborra uzteko ordutegia kontuan hartu behar dira. Izan ere, goizeko 07:00ak baino lehen utzi behar dira tamaina handiko hondakinak.

## Guztia, ez

Gura den guztia ezin da bota leku horretan. Baina, zenbaitzuek bestelako gaiak ere uzten dituzte tamaina handiko zaborren artean. Esaterako, obretan sortutako hondakinak.

Bestalde, Amankomunazgoako arduradunek azaldu dute 946818 116 zenbakira deitu ahal dela salbuespeneko bilketa bat egin behar izanez gero.

## TAMAINA HANDIKO HONDAKINAK

### HILEKO 1. ETA 3. EGUAZTENAK

Garai, Izurtza, Mañaria, Traña-Matieta (Abadiño) eta Zaldibar

### HILEKO 2. ETA 4. EGUAZTENAK

Atxondo, Elorrio eta Zelaieta (Abadiño)

### EGUAZTENERO

Iurreta

\* Tamaina handiko hondakinak kalean egon behar dute goizeko 07:00ak baino lehenago



|   |                         |  |
|---|-------------------------|--|
| <p><b>ERREFUSA</b><br/>FRACCIÓN RESTO</p>              | <p><b>BAI</b><br/>✓</p> | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Materia organikoa.</li> <li>• Birziklatu ezin diren hondakinak.</li> </ul>  |
|   | <p><b>EZ</b><br/>⊖</p>  | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Hondakin arriskutsuak: pilak, bateriak, aerosolak, etab.</li> <li>• Hondakin elektriko eta elektronikoak.</li> <li>• Obra-hondakinak.</li> <li>• Ehun-gaiak.</li> <li>• Inausketako hondakinak.</li> <li>• Altzariak eta egurra.</li> </ul>    |
|   | <p>NOLA?</p>            | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Ongi itxitako poltsa batean.</li> <li>• Edukiontzi barruan.</li> </ul>  |
| <p><b>ONTZI ARINAK</b><br/>ENVASES LIGEROS</p>       | <p><b>BAI</b><br/>✓</p> | <ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Plastikozko ontziak:</b><br/>Botilak, garbitzeko eta buxuntzeko produktuen ontziak, korbxo zuriz egindako erretiluak, plastikozko ontziak, saltokietako plastikozko poltsak, etab.</li> <li>• <b>Metalezko ontziak:</b><br/>Kontserba latak, edari latak, aluminiozko papera, botilen tapoiak eta kristalezko potoen tapak.</li> <li>• <b>Tetrabrickak.</b></li> </ul> |
|   | <p><b>EZ</b><br/>⊖</p>  | <ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Ontzi arinak ez diren plastikoak:</b><br/>Jostailuak, hortzetako eskuilak, plastikozko kuboak, gomazko eskularruak, etab.</li> </ul>    |
|   | <p>NOLA?</p>            | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Erabat hustuta.</li> <li>• Tolestuta.</li> </ul>  |
| <p><b>PAPERA ETA KARTOIA</b><br/>PAPEL Y CARTÓN</p>  | <p><b>BAI</b><br/>✓</p> | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Egunkariak eta aldizkariak</li> <li>• Folioak eta gutun-azalak.</li> <li>• Paperezko ontziak edo poltsak.</li> <li>• Kartoizko kutxak.</li> <li>• Kartoizko arrautza-ontziak.</li> </ul>  |
|   | <p><b>EZ</b><br/>⊖</p>  | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Paperezko musuzapiak.</li> <li>• Sukaldeko papera.</li> <li>• Paperezko ahozapiak eta mahai-zapiak.</li> <li>• Komuneko papera.</li> <li>• Kortxo zuria.</li> </ul>    |
|   | <p>NOLA?</p>            | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Kutxa tolestuak.</li> <li>• Papera graparik gabe.</li> <li>• Plastikozko poltsarik gabe.</li> </ul>   |
| <p><b>BEIRA / VIDRIO</b></p>                         | <p><b>BAI</b><br/>✓</p> | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Beirazko botilak.</li> <li>• Kontserba potoak eta ontziak.</li> <li>• Kosmetika-produktuen ontziak.</li> </ul>  |
|   | <p><b>EZ</b><br/>⊖</p>  | <ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Era guztietako BEIRAK:</b><br/>Ispiluak, edalontziak, leihoak, bonbillak eta fluoreszenteak, platerak.</li> <li>• <b>TAPOIAK, korbxoak, metalezkoak, plastikozkoak, etab.</b></li> </ul>    |
|   | <p>NOLA?</p>            | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Erabat hustuta.</li> <li>• Plastikozko poltsarik gabe.</li> </ul>   |



*garraio gastuak\**

# DOHAINIK!

[www.oizegin.com](http://www.oizegin.com)

**kipula gorriak**  
**2,35 € / kiloa**



**fruta eta barazki**  
**Agarre Mallabia**

**18,35 € otzara**



**Abxarte gazta erdia**  
**11,19 €**



**babak gorriak**  
**12,23 € / kiloa**



**errege sagarrak**  
**2,35 € / kiloa**



B.E.Z. barne

\* garraio gastuak dohainik bakarrik Durangaldean eta Lea-Artibain

... eta gabonetako otzarak  
prestatzen ditugu

**OIZ EGIN**  
on egin

**baserriko produktuak on line!**

**Preziorik onenak!**

**Konfidantzazkoak!**

**Euskal kalitateak!**

94 620 36 11

[info@oizegin.com](mailto:info@oizegin.com)



# AGENDA

ANBOTOk agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi [agenda@anboto.org](mailto:agenda@anboto.org) helbidera edo deitu **94 623 25 23** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.



Azaroaren 24an, 19:00etan,  
Durangoko San Agustinen

## Palabras

Hika antzerki taldearen antzezlaren gaztelaniazko bertsioa eskainiko dute, domekan, Durangoko kulturgunean. 'Aitarekin bidaian' edo 'Ogro txikia' lanetan horren fruitu aberatsa eman zuen lantaldearen zuzendari Agurtzane Intxaurrek dihardu lan honetan ere. Berben bidezko tratu txarrei buruz, oraingoan.



## Erakusketa

### :: DURANGO

Abenduaren 3ra arte, **Xabier Gaztelumendiren lanen hautaketa 2010-2013**, Arte eta Historia Musean.

### :: ZALDIBAR

Azaroaren 22, 23 eta 24an, **Patxi Badiolaren argazkiak**, Euskal Herria kalea, 8an.



## Antzerkia

### :: BERRIZ

Azaroaren 23an, 20:00etan, **'Hamlet'**, Kultur Etxean.

### :: DURANGO

Azaroaren 24an, 19:00etan, **'Palabras'**, San Agustinen.

### :: ZORNOTZA

Azaroaren 22an, 21:00etan, **'Hamlet'**, Zornotza Aretoa.



## Kontalaria

### :: DURANGO

Azaroaren 23an, 12:15ean, **'Ipuin esploratzaileak'**, kultur etxean.

### :: ELORRIO

Azaroaren 29an, 17:00etan, **Maite Franko 'Filomena musugorri, errege' saioagaz**, ume liburutegian.



## Dantza

### :: ELORRIO

Azaroaren 29an, 22:00etan, **'Tempus-i'**, Arriolan.

### :: DURANGO

Azaroaren 24an, 18:00etan, **AIKO erromeria**, Plateruena Kafe Antzokian.



## Musika

### :: BERRIZ

Azaroaren 29an, 22:00etan, **Seiurte**, Kultur Etxean.

### :: DURANGO

Azaroaren 22an, 20:00etan, **Tabira Musika Bandaren kalejira**, Alde Zaharrean.

Azaroaren 22an, 22:00etan, **Bullets of misery + Damudot**, Plateruena Kafe Antzokian.

Azaroaren 27an, 20:00etan, **Jupiter Jon, Kantuaren Kantoian**, Plateruena Kafe Antzokian.

Azaroaren 29an, 22:30ean, **Ruper Ordorika**, Plateruena Kafe Antzokian.

### :: ELORRIO

Azaroaren 22an, 22:30ean, **Jean Mari Ekai Quartet**, Ateneoan. XXIV. Jazz-Blues Jaialdia.

Azaroaren 23an, 22:30ean, **Dean Shot & The Bluehuns**

**ters**, Ateneoan. Arriolako XXIV. Jazz-Blues Jaialdia.

### :: IURRETA

Azaroaren 22an, 19:30ean, **OIZpe Sax 4tet**, Ibarretxe kultur etxean. Iurretako Musikaldia.



## Batzarra

### :: DURANGO

Eguenetan, 18:00etan, **Al-Anon elkartearen batzarrak**, Landako kiroldegia- ren behealdean. "Zure senide edo lagunak edateko daukan erak txarto sentiarazten bazaitu, Al-Anonek lagunduko dizu".



## Zinema

### :: BERRIZ

Azaroaren 24an, 19:00etan, **Amaren eskuak**, Kultur Etxean.

Azaroaren 27an, 20:00etan, **Poesia**, Kultur Etxean.



## Jaiak

### :: ZALDIBAR

Azaroaren 24an, 09:00etan, **Arku tiroa**, Kiroldegian.

Azaroaren 29an, 19:00etan, **Jaien hasiera iragartzeko, txapligua botako du Ilargi argazki taldeak**, udaletxe- tik. **20:00etan, Pintxo-jana**, Olazar futbol zelai zaharreko aldageletan. **21:30ean, pilota**

**partiduak**, Olazar pilotalekuan. **22:30ean, Kontzertuak**, Gaz- tetxean.

Azaroaren 30ean, 11:00etan, **Trikilari gazteen txapelketan parte hartu duten trikilariekin kalejira**. **11:00-13:00 eta 16:00-19:00, umeentzako parkea**, kiroldegian. **12:00-14:00 eta 18:00-20:00, argazki lehiaketa lanen erakusketa**, Euskal Herria etorbidean. **18:30ean, txokolate-jana**, udaletxe- ko plazan. **18:30ean, triki-bertso poteoa**. **20:00etan, Eusko Label oilaskoa eta sagardoa**, udaletxe- ko plazan. **22:30ean, Kontzertuak**, gaztetxean.

Abenduaren 1ean, 10:00etan, **Ibilaldia mendiko bizikletan**, udaletxe- ko plazatik. **12:00-14:00 eta 18:00-20:00, Argazki lehiaketara aurkeztu- tako lanen erakusketa**, Euskal Herria etorbidean. **11:00-13:00, umeentzako rokodromoa**. **17:30ean, Euskal Herriko trikilari gazteen txapelketako finala**, Olazar pilotalekuan.



## Berbaldia

### :: ATXONDO

Azaroaren 26an, 19:30ean, **'Eskalada buruan eta ibili munduan' (Mikel Ajuria)**, udaletxe- ko pleno aretoa.

Azaroaren 28an, 19:30ean, **'Gasherbrum II' (Andoni Ormazabal)**, udaletxean.

### :: DURANGO

Azaroaren 27an, 16:30ean, **'Osasunera, ariketa fisikoaren eta elikaduraren bidez. Teoria- tik praktikara'**, Behargintzan.



## :: DURANGO | ZUGAZA

### 1. aretoa:

#### Los juegos del hambre

Zuzendaria: Gary Ross

- barikua 22: 19:00/22:00
- zapatua 23: 19:30/22:30
- domeka 24: 19:00/21:30
- astelehena 25: 18:30/21:00
- martitzena 26: 20:00

#### El pequeño mago

Zuzendaria: Roque Cameselle

- zapatua 23: 17:00
- domeka 24: 17:00

### 2. aretoa:

#### Blue Jasmine

Zuzendaria: Woody Allen

- barikua 22: 19:00
- zapatua 23: 19:30/22:30
- domeka 24: 18:00/20:15/22:15
- astelehena 25: 18:30/21:00
- martitzena 26: 20:00

#### Los juegos del hambre: en llamas

- zapatua 23: 17:00

## :: ELORRIO | ARRIOLA

#### Capitán Phillips

Zuzendaria: Paul Greengrass

- domeka 24: 20:00
- astelehena 25: 20:00

#### Gru 2: Mi villano favorito

Zuzendaria: P. Coffin eta C. Renaud

- domeka 24: 17:00

## :: ZORNOTZA

#### Los juegos del hambre: en llamas

- zapatua 23: 19:30/22:30
- domeka 24: 20:00
- astelehena 25: 20:00

#### Doraemon eta Nobita

- domeka 24: 17:00

## Azaroaren 29an, 22:00etan, Berrizen

### Seiurte, etxean

Etxean joko du Seiurte laukoteak, datorren barikuan: Berrizko Kultur Etxean. Kontzertu akustikoa eskainiko dute, bertan. Urte hasieran kaleratu zuen Seiurtek 'Atlantida', seigarren diskoa, eta bertako kantak zuzenean eskaini dituzte azken hilabeteetan han-hemenago jai eta aretoetan. Bestelako aldarrean, etxean, ariko dira azaroaren 29an.



# Inmobiliariak

**AMBOTO**  
INMOBILIARIA  
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO

**AGENCIA INMOBILIARIA**  
**Fernando Uribe**  
Barrenkalea 15, behea • 946 816 423  
48200 DURANGO • Bizkaia

**ISD** Inmobiliaria  
del Duranguesado  
Askatasun etorb., 10 • DURANGO • 946 816 666  
[www.inmoduranguesado.com](http://www.inmoduranguesado.com)  
inmoduranguesado@gmail.com

**ETXETXO**  
G. INMOBILIARIA  
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO  
[www.inmoetxetxo.com](http://www.inmoetxetxo.com)

## ETXEBIZITZAK ALOKAIKUAN

DURANGO

- Logela bakarrek, 2 logelako eta 3 logelako etxebizitzak alokairuan.

## ETXEBIZITZAK SALGAI

- DURANGO. ARTEKALEA: 8 etxebizitza eraikitzen hasi gara. Logela 2 eta logela bakarrek. Trastelekuarekin. 140.000tik aurrera.
- LEKEITIO: 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela terrazarekin. Garajea. Auzune pribatua. Igerilekua eta frontoia.
- DURANGO. Apartamentua. Logela 2, egongela, komuna, sukaldea eta despentsa. Berrizteko. 114.000.
- DURANGO. ERDIALDEAN: Logela 2, komun 1 eta sukalde amerikarra guztiz jantzia. Etxebizitza berria eta guztiz jantzia.
- ABADIÑO. ITURRITXO: Logela bakarrek apartamentua. Sukalde amerikarra egongelarekin, komuna eta esekitokia. Ganbara, garaje bikoitza eta trastelekua.
- DURANGO. ASK. ETORB.: 3 logela, komun 2, egongela eta sukaldea balkoiarekin. Trastelekua eta garajea.
- DURANGO. FRANTZISKO IBARRA: 3 logela, sukaldea, office-a, komun 2 eta egongela. Garajea eta ganbara.
- DURANGO. ERDIALDEAN: 123 m2. Etxe osoak kanpora ematen du. Berrizteko. Inguru onean kokatua. Prezioa zehazteke.
- DURANGO. ATIKO BERRIA ESTREINATZEKO. Logela 2, komun 2 eta sukalde amerikarra eta egongela. Garaje itxia eta terraza izugarriak.
- ATXONDO. 3 logela, komun 2, sukaldea esekitokiarekin eta egongela. Etxe osoak kanpora ematen du. Garajea eta trastelekua. Berria ematen du.
- ZALDIBAR. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Guztiz berriztua. Trastelekua.

## LUR SAILAK SALGAI

- BERRIZ. 10.000 m2-ko lursaila. Landa ederra eta sarbide ona.

MATIENA-ABADIÑO

- MATIENA-ABADIÑO. 2.000 m2-ko lursaila. Laua eta fruta-arbolekin.
- IURRETA. 5 hektareko lursaila. Abeletxe bat egiteko aukera dago. Sarbide ona.
- OLETA-OTXANDIO. 2.300 m2. Fruta-arbolak eta abeletxe ditu. Erreka ondoan kokatuta dagoen lursaila.
- ABADIÑO. Bi familiarentzako etxebizitza eraikitzeko 1.100 m2-ko lursaila salgai. Aurrez aurreko informazioa.
- DURANGO. Lursail erdia familia biko etxebizitza eraikitzeko. Proiektua barne.
- ZORNOTZA- EUBA. 3000 m2 eta 3.455 m2-ko lursailak. 2 lurzati. Bakoitzean familiarentzako etxebizitza eraikitzeko aukerarekin.
- ZORNOTZA- LARREA. 27.000 m2-ko lursaila zoragarria. Dena lurzati berean.

## BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

- DURANGO. Eraikin atxikia. Guztiz jantzia. Erdi berria. Estreinatzeko.
- BERRIZ - MURGOITIO. Nekazaritza baserri zoragarria. Ikuspegi ederrak.
- BERRIZ- EITUA. Aurrealdean arku duen baserri ederra. Bi familiako etxebizitza egiteko aukera.
- ETXEBARRIA - ITURRETA. 5 has baino gehiago duen baserri ikusgarria. Lur zati bakarrean eta baserria inguratzen.
- MUXIKA. Berroja auzoa. 2 baserri salgai. 8 hektareetako lursaila inguruan. Biak batera eta banatuta erosteko aukera.

## TXALETAK

- DURANGO-ERRETENTXU: Salgai. Adosatuak, etxebizitza bakarrek eta bikoak.
- ABADIÑO, OTXANDIO, etab.

## ETXEBIZITZAK SALGAI

- ANDRA MARIA: Halla, sukaldea, jangela, egongela, 2/3 logela, 2 komun eta egongelatxo.
- ANTSO ESTEGIZ: Halla, egongela, sukaldea, 2 logela eta komuna.
- ARKOTZA: Halla, sukaldea, egongela, 4 logela, komuna eta bainugela. Ganbara.
- ASKATASUN ETORBIDEA: halla, sukaldea, egongela, 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Garajea eta ganbara.
- BARRENKALEA: Halla, sukaldea, egongela, komuna eta 2 logela. Ganbara.
- EZKURDI: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3/4 logela eta 2 komun.
- F.J. ZUMARRAGA: Halla, egongela 2, sukaldea, 3 logela eta komuna.
- JUAN ITZIAR: Halla, egongela, sukaldea, 2/4 logela eta komuna. 2 despentsa/trasteleku eta sofa.
- MURUETATORRE: Halla, sukaldea, eskegitokia, egongela-jangela, 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Ganbara eta garajea.
- PLATERUEN PLAZA: Halla, egongela, jangela, sukalde jantzia, 3 logela eta 2 komun. Garajea eta trastelekua.
- SAN AGUSTIN: Halla, sukaldea, 5 logela, egongela eta 3 komun.
- SASIKOA: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 3 logela eta 2 komun. Ganbara eta garajea.
- TXATXIENA: Halla, sukaldea, despentsa, egongela-jangela eta 3 logela. Balkoia. Ganbara eta garajea.

- UNDTORRE: Halla, sukaldea, 3 logela, egongela eta komuna.
- ABADIÑO-FERIALEKUA: Halla, sukaldea, 3 logela, egongela eta komuna. Balkoi handia. Ganbara eta garajea.
- ABADIÑO-MATIENA: Halla, sukaldea, egongela 2/3 logela eta komuna. Ganbara.
- ABADIÑO-MUNTSARATZ: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Ganbara. Egoera onean. Igogailua.
- BERRIZ: Halla, sukalde jantzia, egongela-jangela, 2 logela eta komuna. Balkoia. Jantzia. Garajea eta trastelekua.
- ELORRIO: Berreraikitzeke etxea, lursailduna.
- IURRETA: halla, egongela-jangela, sukalde jantzia office-arekin, despentsa, 3 logela eta komuna. Terraza itxia eta trastelekua. Guztiz berriztua.
- MAÑARIA: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3 logela eta 2 komun. 12 m2-ko trastelekua. Oso egoera onean. Igogailua. Eguzkitsua.
- MARKINA: Iruzubieta. 55.000 m2-ko lursaila erdi berriztatutako eraikinarekin.
- BASERRIA LUR EREMUAREKIN SALGAI MENDATAN ETA BERRIZEN.

## BESTE ESKAINTZA BATZUK BULEGOAN

## ETXEBIZITZAK SALGAI

### ASKATASUN ETORBIDEA



- Eraikitzen ari diren etxebizitzak. Etxe osoak kanpora ematen du. 3 logela, egongela, sukaldea eta komun 2. Garaje bikoitza eta itxia. **300.000€** BEZa barne.

### ASKATASUN ETORBIDEA



- 3 logela, egongela, sukalde jantzia eta komun 2. Garajea eta ganbara. **265.000€**.

### KOMENTUKALEA



- 3 logela, egongela, sukalde jantzia eta komuna. Ganbara. Igogailua eta berogailua. **185.000€**.

### F.J. ZUMARRAGA



- Bizitzen sartzeko prest dagoen apartamentua. Guztiz berriztua. Logela, egongela, sukaldea eta komuna. **115.000€**.

### PLATERUEN PLAZA



- Durango erdian dagoen etxebizitza handia. 90 m2. 3 logela. Garajea. **290.000€**.

[www.inmoduranguesado.com](http://www.inmoduranguesado.com)

## AUKERA

- SAN ROKE: 90 m2. 3 logela eta komun 2. Terraza. Igogailua. Ganbara eta garajea. Eguzkitsua. 220.000€.
- ANBOTO: 70 m2. 3 logela. Balkoia. 126.000€.
- IURRETA: 3 logela, egongela handia eta komuna. Jantzia. Berogailua. Berriztua. 138.000€.
- PLATERUEN PLAZA: 105 m2. 3 logela, egongela, sukaldea eta komun 2. Ganbara eta garajea. 235.000€.
- BARRENKALEA: 3 logela eta egongela. Berriztua. Eguzkitsua. Etxe osoak kanpora ematen du. 156.000€.
- ARAMOTZ: 3 logela. Eguzkitsua. Berogailua. 119.600€.
- OIZ (Landako): 3 logela, egongela eta sukaldea. 3 balkoi. Igogailua. Negoziagarria.

## ETXEBIZITZAK SALGAI

- PLATERUEN PLAZA: Logela 2. Ikuspegi ederra. 183.000€.
- F.J. ZUMARRAGA: Pisu altua. 3 logela, egongela eta komun 2. Terraza 2. Ganbara. Garajea. Etxe osoak kanpora ematen du.
- MATIENA: 60 m2. 3 logela. Ganbara. 108.000€.
- MATIENA: Trañabarren. 3 logela eta komun 2. Terraza. Eguzkitsua. 195.000€.
- ASKATASUN ETORBIDEA: Erdi berria. 3 logela. Etxe osoak kanpora ematen du. Trastelekua eta garajea. 270.400€.
- TXIBITENA: 3 logela eta komun 2. Terraza 2. Sukaldea eskegitokiarekin. Ganbara eta garajea. Ikuspegi ederra. 266.300€.
- SAN IGNAZIO: 105 m2. Erdi berria. 3 logela eta 2 komun. Ganbara eta garajea. 260.000€.
- FRANTZISKO IBARRA: Logela 2, komuna eta egongela. Esekutokia. Ganbara eta garajea. 235.000€.
- DURANGO: Duplexa. Erdi berria. 3 logela eta 2 komun. Garajea.
- ATXONDO: 90 m2. 3 logela, komun 2, egongela eta sukalde despentsarekin. Terraza. Ganbara. Eguzkitsua. 186.000€.
- BERRIZ: Iturritza. 90 m2. 3 logela eta komun 2. Despentsa. Terraza. Berogailua. Ganbara eta garajea. 211.200€.
- BERRIZ: Txaleta. 365 m2. Estreinatzeko. 1.270 m2-ko lursaila.

## GARAJEAK SALGAI

- SAN FRANTZISKO: Itxia. 25.000€.
- INTXAURRONDO: Itxia.
- SAN IGNAZIO: Itxia. 21.000€.
- ABADIÑO-MUNTSARATZ: Itxia
- AERRETENTXU: Itxia. 15.000€.

## LOKALAK SALGAI ETA ALOKAIKUAN

- F.J. ZUMARRAGA: 100 m2. Egokitua. Alokairuan. Erakusleihoak bi kaletara ematen du. 800€.
- J.M. ALTUNA: 80 m2. 150.000€.
- SAN IGNAZIO: 125 m2. Negoziario funtzionamenduan. Salgai edo alokairuan. 900€.
- ERMODO: 65 m2. Egokitua. Alokairuan.
- EZKURDI: Bulegoak. 65 m2. 650€. Alokairuan.
- PLATERUEN PLAZA: 130 m2. Egokitua. 990€.
- LANDAKO: 50 m2. Egokitua. Alokairuan.
- IBAIZABAL: 40 -100 m2. 400€.
- MATXINESTARTA: 70 m2. Egokitua. 600€.
- ARTEKALEA: Egokitua. 180€.
- SASIKOA: 60 m2. 600€. Egokitua.
- IPARRAGIRRE: Lokal komertziala. 33 m2. 49.000€.
- ARTEKALEA: 80 m2. Alokairuan.
- SAN IGNAZIO: 35 m2. Salgai. 54.000€.
- OIZ: 60 m2. 90.000€.
- ARTEKALEA: 45 m2. Berria. Negoziario funtzionamenduan. 120.000€.

**> ZORION AGURRAK**✉ [zorionak@anboto.org](mailto:zorionak@anboto.org)  
eguziteneko 14:00ak arteko epea

> Durangoko neska alaiena izaten jarrai dezan, musu handi bat ama eta ahizparen partez. Zorionak!



> Zorionak **Rakel!** Musu handi bat denon partez, eta, bereziki, Eider, Inhar eta Ibonen partez!



> Zorionak **Eider** eta **Marina!** Ondo pasau dozue zuen urtebetetzean? Patxo handi bat lagunen partez!



> Azaroaren 14an gure amatxok urteiek bete ebazan: Irati, Oroitz eta aitaxon partez patxo bat!



> Izeko **Itziarrek** urteak bete ditu. Zorionak familia osoaren partez, eta, bereziki, Izarren partez!



> Azaroaren 18an jaiotzen zen **Noah**. Ongi etorri familia osoaren partez! Mosu bana gurasoei!



> **Oihan Gallo Garitano**ri amamatxu Bego, aitite Imanol eta beste etxeko guztien partez musu potolo bat!



> Gure poxpolin maitagarriek, **Junek**, zazpi urte beteko ditu. Mosu pila bat familiaren partez!



> Ailegatu da azkenean zure eguna enano! Zorionak eta oso ondo pasatu! Besarkada handi bat!



> Zorionak **Asier!** Muxu handi bat amatxo eta aitaxoren partez eta ondo pasau eguna!



> **Telmo**, zorionak zure 6. urtebetetzean, Martina, aita, ama eta familia guztiaren partez!



Jose Antonio Agirre, 4  
946 200 869  
Avda. Montevideo, 1  
946 204 383

> Zorionak **Beñat Saenz de Samaniego!** Hamabostean behin zotz egin dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu, lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9an.

**> ESKELAK****SEGUN LAZKANO AGIRRE**

"gure Segun"

Pello, Xabier eta Maritxi guretzako zuen aitte edo senarra argazkilari, lankide eta lagun moduan ezagutzea ohore bat izan da. Musu bana denoi

**ERAZeko lagunak****SEGUN LAZKANO AGIRRE**

Gure ondotik joan zara,  
baina beti izango zaitugu  
gure bihotzean

**anboto** ➤  
komunikabideak**SEGUNDO LAZKANO AGIRRE**

(Zelaieta Herri Eskolako irakaslea)

Udagoienak  
orbelak askatzen ditu,  
bihotzean daude  
erretratu ahaztezinak.

Orbelak ere itzultzen dira  
sekula joan ez balira bezala...  
eta maitasuna geratzen da  
hutsunearen gainetik.

**ZELAIETA HERRI-ESKOLAko lankide, ikasle eta guraso elkarte****SEGUN LAZKANO AGIRRE**

Udagoienarekin batera  
alde egin dozu...  
baina zure moduko izarrak  
ez dira inoiz itzaltzen

**Barriketan euskara elkarte**



## Durangaldeko berbalagunen V. Kultur Lehiaketa

|   |  |   |   |
|---|--|---|---|
| <b>1. "Zarea", Durangaldeko euskararen sarea, zein erakundek sortu du?</b><br>a) Gerediaga elkarteak<br>b) Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoak<br>c) Durangoko Udalak | <b>2. XX.mende hasieran, zergatik esaten zioten "Madril txiki" Zaldibarri?</b>   | <b>3. Zelan deitzen da Durangoko merkatariek egin duten azken kanpaina?</b><br>a) "Salerosketak be euskeraz"<br>b) "Dendetan euskeraz"<br>c) "Euskeraz erosi" | <b>4. Zelan esango zenuke hau euskaraz? "Las pasamos canutas"</b>   |
| <b>5. Nork egin du Durangoko Azokaren kartela?</b><br>a) Itziar Okarizek<br>b) Iban Gorritik<br>c) Eñaut Aiertzaguenak  | <b>6. Noiz ospatuko da Bertsolari Txapelketa Nagusiaren finala?</b><br>a) Abenduaren 22an<br>b) Abenduaren 21ean<br>c) Abenduaren 15ean  | <b>7. Non hasten da Merioaren ibilbidea?</b><br>a) Iurretako Goiuria auzoan<br>b) Garaiko Momotioko San Juan Baselizan<br>c) Garaiko plazan                   | <b>8. Durangaldean herri mota bi ditugu, elizateak eta uriak. Zeintzuk dira Durangaldeko uriak?</b>   |
| <b>9. Zenbat urte bete ditu aurten Plateruena Kafe Antzokiak?</b><br>a) 9 urte<br>b) 10 urte<br>c) 5 urte   | <b>10. Elorrion, Errebonbilo Egunean, jendea gudatik itzuli zela ospatzen da; zein guda zen hura?</b><br>a) Lepantoko guda<br>b) Espainiako Independentzia guda<br>c) Trafalgarko guda | <b>11. Berrizen zein jaiegunetan izaten da ohikoa odoloste jana?</b><br>a) San Pedro egunean<br>b) San Miguel egunean<br>c) San Martin egunean                | <b>12. Durangaldeko zenbat bertsolari daude sailkatuta Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalerako?</b><br>a) Hiruk<br>b) Batek<br>c) Bik         |
| <b>13. Noiz ospatzen da Merinalde Eguna?</b><br>a) Abenduaren 27an<br>b) Abenduaren 20an<br>c) Abenduaren 28an  | <b>14. Abadiñon, San Trokaz jaietako pertsonaia zelan deitzen da?</b><br>a) Blas<br>b) Gerbas<br>c) Trokaz   | <b>15. Zelan esango zenuke hau euskaraz? "Está en el quinto pino"</b>   | <b>16. Durangoko eta Berrizko Berbalagunek zenbagarren urteurrena ospatu dute?</b><br>a) IX. urteurrena<br>b) X. urteurrena<br>c) V. urteurrena |
| <b>Izen-abizenak eta telefonoa:</b>   |  | <b>Erantzun zuzena markatu, eta entregatu herriko edozein euskaltegitan edo euskara-zerbitzuan, abenduaren 5a baino lehen.</b>                                |   |

► SARIA: LIBURU-SORTA EDERRA ◀

# Durangaldeko berbalagun

**BERBALAGUN ZURETZAT DA;** euskara gustuko baduzu, edo euskara praktikatu eta hobetu nahi baduzu, edo konfiantza hartu nahi baduzu.

**BERBALAGUN ZURETZAT DA;** euskeraz ondo badakizu, eta ikasi edo berba egin nahi duenari laguntzeko prest bazaude.

Partaide guztiek EHUKo kredituak eskuratu ahal dituzte, bidaia eta egonaldietarako deskontuak, AIZUI, ARGIA eta BERRIA merkeago...



Bete fitxa hau eta utzi ondoko lekuetan:

- ABADIÑO:** Errota Kultur Etxean.
- ATXONDO:** Udaletxean.
- BERRIZ:** AEK euskaltegian eta Euskara Zerbitzuan.
- DURANGO:** AEK euskaltegian, Udal euskaltegian, Hizkuntza Eskolan eta Berbaron.
- ELORRIO:** AEK euskaltegian eta Euskara Zerbitzuan.
- IURRETA:** Ibarretxe Kultur Etxean.
- IZURTZA:** Udaletxean.
- MAÑARIA:** Udaletxean.
- OTXANDIO:** Udaletxean.
- ZALDIBAR:** Udaletxean.

**639 400 786**

- [www.durangaldea.blogspot.com](http://www.durangaldea.blogspot.com)
- [durangaldea@ae.org](mailto:durangaldea@ae.org)
- [durangaldeko berbalagunak](#)

## BERBALAGUN en PARTE HARTU NAHI DUT!

Izen-abizenak

Telefonoa(k)

Posta elektronikoa

Zein herritan nahi duzu?

euskalduna naiz eta laguntzeko prest nago  mintzapraktika behar dut

Datu Pertsonalak Babesleak buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritzen dena betetzearren, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak PRAKTIKA JARDUERAK fitxategian sartuta daudela eta horren helburua dela praktika zerbitzuan zena ematen duten pertsonen kudeaketa. Datu horiek administrazio publikoari lege ahal izango zaitzkie, goian zehazitutako helburuak beteazko zedez. Fitxategia Datuak Babesleko Agentzian aloratu dugu eta datuen segurtasuna bermatzeko neurriak ezarri ditugu.

Fitxategi horien erantzulea EUSKARAZ KOOP ELKARTEA (AEK) bera da eta, hori dagokionez, hala nahi izanez gero, aipatutako Legean aurreikusitako sarbide, zuzenketa, ezeztatzen eta aurkaritza eskubideak baliabizatu; horetarako Txakur Kalea 1, 4 a 48.505 Bilbo helbidera edo posta elektronikora eskaera bat bidali behar duzu, NA edo nortasuna egiaztatzeko beste agiri batkin batera.

**Antolatzaileak eta Udalak**

**Babesleak**



## “Esaten didatenez, gure odolosteak ez du bihotzerrerik ematen”

Bizkaiko odoloste onenaren saria jaso du bigarren; familiako errezetaz lan eta lan dabil orain

### > AMAIA UGALDE

**Odoloste finak egiten dituela dio Txema Alberdi harakina. Osagaiak ia igarri ere ez direla egiten, eta horixe dagoela 2009an eta aurtun Bizkaiko odoloste onenaren munduko txapelketa irabazteko arrazoia. Errezeta aitaren amak eman zion Alberdiren amari, eta amagandik ikasi zuen berak.**

**Saria jasota, odoloste asko saltzen zabilta orain?**

Bai. Tenperatura hotzak helzen direnean, normalean, jende gehiagok erosten du, eta, orain, sariaren kontuarekin, askoz ere gehiago.

**Zer diote bezeroek?**

Pozik daude. Betiko bezeroak ni beste poztu dira ia. Askok zoriandu naute; bezero ez direnek ere bai.

**Familiako errezeta da zurea.**

Bai. Aita Santa Apolonia baserrikoa zen, eta aitaren amak irakutsi zion nire amari, eta amarekin ikasi nuen nik. Gurasoek harategi txiki bat zabaldu zuten lehenengo, hiltegi ondoan, eta hura txiki geratu zenean, hona egin genuen salto.

**Errezeta bai, baina amaren odolostea eta zurea berdin-berdinak dira?**

Errezeta berdina aldatu egiten da esku batetik bestera, nahi eta nahi ez. Sukaldean ere, nahiz eta porru-patatak egunero egin, ez dira beti berdin iruten.

**Esanda daukazu zuen sekretua osagaien oreka eta dena xehe-xehe ebakitzea dela. Gure odolostea oso fina da. Arro-**

za ere badauka, baina askok ez dio arroz igertzen. Fina da. Agian porru zatiren bat nabari ahalko duzu, baina normalean ez dira osagaiak igartzen.

**Bizkaiko odolostearen berezitasuna arroz pixka bat edukitzea da, ezta?**

Bai. Gipuzkoa aldean, Zaldibartik harantz, ez dute edukitzen. Araba aldean bai, eta Burgos aldera eginda, gehiago. Bizkaiko odolosteak, gehienez, %10 eduki behar du arroza, hori dakar lehiaketako oinarriak ere. Hori da maximoa, eta, gero, bakoitzak gura diona botazen dio.

**Zer egiten dio arrozak odolosteari?**

Pixka bat moteldu egiten du zaporea. Askok esaten didate gure odolostea ez dela berriro ahora etortzen. Ez dakit, koipe gutxiago duelako-edo. Barazki gehiegi edukitzen badu ere, bihotzerrea ematen du...

**Hori edukitzen du odolosteak txarra!**

Bai, baina gureak ez du arazo asko sortzen. Hori esaten digute. Koinatak ere esana dit gure odolostea jaten duenean, ez diola bihotzerrerik ematen.

**Orduan, gehiago jateko moduan!**

Gehiago ez, sarriago, agian. Lehen kanporako ere egiten genituen, eta Lekeitioko bezero batek esaten zidan normalean birritan pentsatu behar izaten zuela odolostea jan orduko. Gureagaz ez.

Gurea suabea da, eta, aldi berean, zapore puntua dauka.

**Aurtun, txorizo txapelketa ere aurkeztu zara, eta hantxe ere finalista! Tradizio handia dute zuen txorizok?**

Bai, betidanik. Baserriko tradizioan txerria hiltzen zen, eta, gero, harategiaz gehiago. Finalista geratu garenez, orain, beste erronka txiki bat daukagu hor. Txorizo mota bi egiten ditugu: Bata txerri normalagaz eta piperrautsagaz, eta, bestea, baserriko txerriagaz eta piper txorizeroekin. Arrakasta daukate. Mallorcako saltzaile bat hona etortzen da, eta hark dio Espainia osoko txorizoak

erosten dituela, eta hemengo modukorik ez duela hartu. Eta nik pozik entzuten diot; ez dakit gezurretan dabilen, baina, horrela bada ere, ni pozik.

**Modan daude orain dieta makrobiotikoak eta garbi jatea. Txorizoa eta odolostea orduan...**

Lehenengo kentzen direnak dira, baina gehien gustatzen zaizkigunak! Antidieta dira. Italian antipasta izaten den bezala, hemen, antidieta. Txarra izango litzateke egunero jateko, baina noizik behinean, gomendagarria ere bada.

**Sarri jaten duzu zuk?**

Atzo bertan jan nituen bak odolosteagaz, eta oso gustura!



## McDonald's eta askatasuna

McDonald'sera joan ala ez joan; horixe da politikari batzuentzat “askatasunean aukeratzeko” kontzeptuaren paradigma. Horregatik, norbanakoaren askatasunak errespetatzen dituen demokrazian bizi garelako, hain zuzen, McDonald's eta Burger King jatetxeak ezartzea defendatu behar omen dugu. Askatasunaren izenean, alegia.

Aukera askatasuna horrela erabiltzea falazia bat da. Politikari kontserbadoreek liberalismotik hartu duten argudio mailegatua, euren interesen zerbitzura. Egia da pertsona batek askatasuna izango duela McDonald'sera joateko ala ez joateko, baina joko-zelaia kapitalismo basatiak ezartzen digun bitartean, aukera askatasuna ustela izango da. Gainera, sublimalki bada ere, hurrengo mezua hau transmititzen da: “Bada, askatasun hau aprobetxatu, eta joan egin behar dut, ez joatea eta hutsaren hurrengo gauza bera direlako, ez joatearekin batera ematen didaten aukera askatasuna alperrik galtzen dudalako”.

Eliza katolikoak mendez mende zabaldu duen mezu bat dator kit burura: “Lasai ibili, eliztarrok. Munduan pasadan gaude, eta eliteek izorrotuta bizi bazarete ere, zeruan izango gara guztiok zoriontsu”.

Aukera askatasuna falazia bat da, batzuen sistema ez erortzeko falazia. Aukera askatasuna ematen digute, Burger Kingera joateko ala ez joateko; baina ez digute askatasunik ematen monarkiaren eta errepublikaren artean aukeratzeko; edo ordezkari politikoen soldatak erreferendumean ezartzeko.

Pertsonen arteko berdintasunik gabe, aukera askatasuna falazia bat da.

Noiz izango dira udaberriko tenporak?

Maiatzean edo uztailean landatu behar ditut porru-landareak?

Ilbehera da, moztuko dizut ilea?

Zenbat egun ditu otsailak: 28 edo 29?

2014